



EUSKADIKO GORROTO- GERTAKARIEI BURUZKO 2022ko TXOSTENA





EUSKADIKO GORROTO- GERTAKARIEI BURUZKO 2022ko TXOSTENA



EUSKADIKO GORROTO-GERTAKARIEI BURUZKO 2022ko TXOSTENA

Giza Eskubideen eta Botere Publikoen UNESCO Katedra
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Zuzendaritza eta Koordinazioa:

Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA Irak. Dk. (Zuz.)
Enara GARRO CARRERA Irak. Dk. (Koord.)

Lantaldea:

Mikel ANDEREZ BELATEGI Dk.
Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO
Iñigo GORDON BENITO Dk.
Uxue MARTÍN SILVA

Segurtasun Saila
Eusko Jaurlaritza

Vitoria-Gasteiz/Leioa
2023ko martxo

ISBN: 978-84-09-50314-8



LABURDURAK	5
SARRERA	6
I. GORROTO GERTAKARIAK 2022	7
1.1. GORROTO GERTAKARIEN BANAKETA	9
1.1.1. Gorroto delituen sailkapena babestutako kolektiboaren arabera	9
1.1.2. Gorroto delituen sailkapena delitu-tipologiaren arabera	12
1.1.3. Gorroto delituen banaketa espaziala	15
1.1.4. Gorroto delituen denbora-banaketa	22
1.2. EGOZPENEN BANAKETA	24
1.3. ATXILOKETEN BANAKETA	29
1.4. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA	33
1.5. ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BANAKETA	39
1.6. ONDORIOAK	39
1.6.1. Gorroto gertakarien guztizko kopurua	39
1.6.2. Gertakarien jomugan dauden kolektiboaren mapa	40
1.6.3. Delitu-tipologiak	40
1.6.4. Gorroto delituen banaketa espazioan eta denboran, pertsona ikertuak, atxilotuak eta biktimak	41
1.6.5. Euskadiko gorroto mapa Estatu mailako testuinguruan	42
II. DATU OFIZIAL EGUNERATUEN ESPARRU KONPARATUA	44
2.1. ERRESUMA BATUA	45
2.1.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera	45
2.1.2. Beste datu batzuen eguneratzea: Eskozia	47
2.1.3. Beste datu batzuen eguneratzea: Ipar Irlanda	50
2.1.4. Beste datu batzuen eguneratzea: Ingalaterra eta Gales	53
2.2. FRANTZIA	55
2.2.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera	55
2.2.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk	57
2.3. ALEMANIA	61
2.3.1. Errealitate enpirikoa, OSCEtik ateratako datuen arabera	61
2.3.2. Errealitate enpirikora hurbilketa: beste datu batzuk	62
2.4. LABURPENA ETA HAUSNARKETA KONPARATUA	63
2.4.1. Erresuma Batua	63
2.4.2. Frantzia	66
2.4.3. Alemania	66
III. ERABEREAN SAREAREN TXOSTENAK	68
IV. SINTESIA ETA AZKEN ONDORIOAK	70
BIBLIOGRAFIA	75
IRUDIEN AURKIBIDEA	79
I. ERANSKINA: PRENTSAN NABARMENDU DIREN KASUAK 2022an	81
ARRAZAKERIA/XENOFOBIA	84
SEXU ORIENTAZIOA / IDENTITATEA	97
IDEOLOGIA/ORIENTAZIO POLITIKOA	106
SEXUA-GENEROA	113
II. ERANSKINA: EAE-ko FISKAL NAGUSIAREN ETA ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIAREN 2022ko	
MEMORIEN LABURPENAK	117
ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIAREN 2022ko MEMORIA (2021eko EKITALDIA)	118
EAEko FISKALTZAREN 2022ko MEMORIA (2021eko EKITALDIA)	121

Laburdurak

art.	Artikulua(k)
Bol.	Bolumena
CHS	<i>Criminal History System</i> (Eskozia)
CNCDH	<i>Commission Nationale Consultative des Droits de l'Homme</i> (Frantzia)
COPFS	<i>Crown Office and Procurator Fiscal Service</i> (Eskozia)
CPS	<i>Crown Prosecution Service</i> (Ingalaterra eta Gales)
CRMS	<i>Contact Record Management System</i> (Ipar Irlanda)
CSEW	<i>Crime Survey for England and Wales</i> (Ingalaterra y Gales)
DILCRAH	Arrazakeriaren, Antisemitismoaren eta LGBTI kolektiboaren kontrako gorrotoaren aurkako ministerio-arteko ordezkariak (Frantzia)
Dk.	Doktorea
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
ECRI	Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea
ESLA/OSCE	Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundea/Organization for Security and Co-operation in Europe
FRA	Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Agentzia
Ibid.	Ibidem
INE	Espainiako Estatistika Institutua/Instituto Nacional de Estadística
Irak.	Irakaslea
IVDP	<i>Interim Vulnerable Persons Database</i> (Eskozia)
Koord.	Koordinatzailea(k)
KPMD-PMK	Polizia kriminalaren politikoki motibatutako kriminalitateari buruzko informazio-zerbitzua (Alemania)
LGTB(I)	Lesbiana, Gay, Transexual, Bisexual eta Intersexualak
LO	Lege Organikoa
M	Milioiak
n	Kasu kopurua
OCLCTIC/SDLC	Informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako kriminalitatearen aurkako bulego nagusia (Frantzia)
ODIHR	Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideetarako Bulegoa (ESLA/OSCE)
ONDRP	Delinkuentziaren eta Erantzun Penalen Behatoki Nazionala (Frantzia)
op. cit.	Goian zitatuta
or.	Orrialdea(k)
OSR	<i>Office for Statistics Regulation</i> (Erresuma Batua)
PHAROS	Salaketak harmonizatzeko, aztertze, berreskuratzeko eta orientatzeko plataforma (Frantzia)
PKL	Prozedura Kriminalleko Legea (Espainia)
PPS(NI)	<i>Public Prosecution Service for Northern Ireland</i> (Ipar Irlanda)
PSNI	<i>Police Service of Northern Ireland</i> (Ipar Irlanda)
Rec.	Helegitea
RJ	Aranzadi Jurisprudentzia Biltegia
SCRT	Servicio Central de Información Territorial (Frantzia)
SSMSI	Servicio Estadístico Ministerial de la Seguridad Interior (Frantzia)
zk.	Zenbakia
ZK	1995eko Zigor Kodea (Espainia)
Zuz.	Zuzendaria(k)

Sarrera

2018ko ekainaren 4an Eusko Legebiltzarrean (Erakunde, Segurtasun eta Gobernantza Publikoko Batzordea) Gorroto-gertakariari buruzko lehen Txosten ofiziala aurkeztu zenetik, jarraian egiten den seigarrena da. Beraz, badugu ondoz ondoko **7 urtetako datuen azterketa (2016-2022)**. Horrenbestez, txostena tresna kontsolidatua da, eta nolabaiteko ikuspegia ematen du hurrengo edizioetako emaitzen balorazioari dagokionez.

Txostenaren helburua, komenigarria da errepikatzea, lehenik eta behin, gorroto-kriminalitatea epe ertain eta luzean hobeto ezagutzea, prebenitzea eta modu eraginkorragoan desagerraraztea da. Gainera, bigarrenik, operadore juridikoekiko koordinazioa erraztu nahi da, bai eta Txostena elementu lagungarri bihurtu dadin sustatzea gorroto-delituaren lotutako lan-esperientzia nazioarteko instantzietara eramateko.

Euskadiko Gorroto Gertakarien Laugarren Txosten hau, beraz, 2022ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arteko aldiari dagokio, eta delitu izan daitezkeen gertakariak zein beren izaera eta inguruabarrengatik Euskal Poliziari (Ertzaintza) jakinarazi zitzaizkionak berriro hartzen ditu kontuan, nahiz eta azken horiek ez diren orain arte bezain modu mugatuan jasotzen. Pandemiaren agerpenak gaueko aisialdiaren eta kirol-ikusketen eremuen garapenean modu zuzen eta zorrotzean eragin zuen, horiek, arau-hauste administratiboak lehentasunez erregistratzen diren jardura-sektoreak dira, hain zuzen ere. Horrela, 2022. urtea izan da Covid-19aren agerpenaren ondoren arau-hauste horien errealitatearen isla fidelagoa berriz ere erakustea posible izan den lehena.

Adierazitakoaz gain, 2022ko Txostenak dagoeneko finkatuta dagoen egitura jarraitzen du, baina berritasun interesgarriren batekin. Lehenik eta behin, delituak izan

daitezkeen gorroto-gertakarien 2022ko informazioa eta analisisia lantzen da (lehen puntua). Bigarrenik, Europako eremuarekin azterketa konparatuaren berri ematen da (bigarren puntua). Aurten, aurrekoan bezala, atal honetan gure kultura juridikoaren eremuko herrialde garrantzitsuenen datuak eguneratzen dira (Alemania, Frantzia, Ingalaterra eta Gales) eta baita Eskozia eta Ipar Irlanda ere. Horrela, arlo eta pisu demografiko horretan tradizio handia duten herrialdeekin eta guretik hurbilen dagoen esperientzia federala ordezkatzeko dutenekin alderatzeko ikuspegia bateratu eta eguneratu da. Modu honetan, herrialde horietako datuen bilakaeraren jarraipena egin daiteke, aurreko txostenetan adierazitako ahaleginak kontuan hartuta.

Hirugarrenik, aurten kolektibo babestuekin lan egiten duten elkarten txostenak ere aipatzen dira. Edonola ere, aipatu behar da aurten ez dugula Eraberean Sareak aurkezten duen txostena, zehazki, 2021. urteari dagokiona, lan hau idatzi den unean oraindik argitaratu ez dena.

Amaitzeko, Txostena sintesiaren eta ondorioen ohiko blokearekin ixten da, instrumentalagoak (bibliografia, irudien aurkibidea) eta informatzaileagoak (I. eta II. eranskinak: prentsan nabarmendutako kasuak; Euskadiko Fiskal Nagusiaren eta Estatuko Fiskaltza Nagusiaren memorien laburpena, hurrenez hurren) diren atalek jarraitzen diotelarik.



1. Gorroto gertakariak 2022

1. Gorroto gertakariak 2022

2022an¹ delitu izan daitezkeen 438 gorroto-gertakari erregistratu dira Euskadin; zeinetatik 435 delituak diren (%99,31) eta 3 arau-hauste administratiboak (%0,68).

2022an erregistratutako gorroto-delituen azterketarekin hasiko gara, eta, aurrerago, arau-hauste administratiboak aztertuko ditugu. Ildo horretan, hurrengo grafikoak gorroto-delituek azken 7 urteetan izan duten bilakaera erakusten du. Ikus daitekeenez, delitu-gertakarien kopurua esponentzialki igo da azken hiru urteetan, baina igoera zorrotzagoa izan da azken urtean. Aurreko txostenean azaldu bezala, aurreko urteetan datuak biltzen eta erregistratzen izandako esperientziari, Ertzaintzaren eta Euskal Herriko Unibertsitatearen arteko elkarlanari eta prestakuntzaren areagotzeari esker, gertakari mota horiei buruzko informazioaren detekzioa eta zentralizazioa aldatu eta hobetu ahal izan da.

Horrek azalduko luke, neurri batean, 2020an eta 2021ean delitu-intzidenteak ugaritu egin zirela, eta hori poliziaren detekzio-eraginkortasun handiagoari egotz dakiokela, 2022an ere ikus baitaiteke. Bestalde, esan daiteke, halaber, arlo horretako lege-bilakaerak, bereziki genero-arrazoiak txertatzean, datu esponentzialak biltzen dituela. Kapital-faktore hori ere xehatuko da ondoren.

Ofizialki erregistratutako gertakarien gorakada, nolanahi ere, aurreko txostenetan helburu desiragarritzat jotzen zen egoera bat zen: bilatutako agertoki bat da; izan ere, txostenaren helburua da, besteak beste, gertakari horien instruktoreen kontzientzia eta prestakuntza teknikoa hobetzea, zifra beltza argitzen joateko. Polizia-jarduera tokian bertan hobetzearen eta erregistro-sistematikaren ondorioz izandako gorakada, beraz, egiaztapen positiboa eta itxaropentsua da; izan ere, argazki errealego bat argitara ateratzeko aukera ematen du, ezkutatuta geratuko ez balitz bezala, xede diren kolektiboen defentsa-gabezia eta biktimizazioarekin. Gaur egun, Euskadin, detekzio polizialeko antenak hobetu egin dira, eta, hurrenez hurren, zigorgabetasuna murriztu egin da.

Hala ere, azken urte honetan hautemandako gorroto-intzidenteen gorakada ez da soilik aipatutako hobekuntzaren ondorio. Aitzitik, badirudi Euskadin gorroto-delituek benetan gora egin dutela, aurreko txostenetan atzematen hasi den goranzko joera sendotuz². Igoera horrek ez du eragozten, nahiz eta gutxitzen joan, delitu horiek jasaten duten zifra beltzak³ handia izaten jarraitzea, eta horrek zaildu egiten du jakitea bai gorrotoak eragindako biktimizazioaren benetako irismena, bai 2022an egindako gorroto-delituak neurri berean handitu diren. Izan ere, ikerketa batzuen ara-

¹Txosten honetan jasotako gertakariak 2022ean erregistratutako gertakariak dira, urte horretan gertatu diren edo ez kontuan hartu gabe. Izan ere, 19 delitu aurreko urteetan egin ziren, 2 2019an, 3 2020an, eta 14 2021an

²Edonola ere, ezin da alde batera utzi polizia-estatistikek Espainiako kriminalitatearen ezagutza-iturri gisa duten balio mugatua. Izan ere, azken txostenetan aipatu den bezala, gorroto gertakariak biltzeari dagokionez, badirudi gaiak duen prekaritatearen ondorioz zifra beltz handi baten adierazle dela. Horregatik, baliteke 2022an jasotako gertakari-kopuruak izan duen gorakada esponentziala datuak biltzeko sistemak hobetzearen edo gorroto-delituen benetako gorakadaren ondorio izatea. Kausa anitzeko azalpenak bilatu behar dira gorroto-intzidenteen erregistroko gorabeherari buruz, hala nola xede-taldeek Segurtasun Indar eta Kidegoekiko duten konfiantza handitzea edo kolektibo horien salaketak jasotzen dituzten Segurtasun Indar eta Kidegoetako agenteen prestakuntza hobetzea, besteak beste. LANDA GOROSTIZA, J.M., "El mapa de odio en el País Vasco. A la vez una reflexión sobre delitos de odio y violencia política en Euskadi, Catalunya e Irlanda del Norte", *InDret: Revista para el Análisis del Derecho*, 4. zk., 2018, 17. or. Polizia-estatistiken balio mugatuari buruz sakontzeko, kriminalitatearen benetako irismena ezagutzeko iturri bakarra den aldetik, ikusi GARCÍA ESPAÑA, E./DÍEZ RIPOLLÉS, J.M./PÉREZ JIMÉNEZ, F./BENITEZ JIMÉNEZ, M.J./CEREZO DOMÍNGUEZ, A.I./ (2010), "Evolución de la delincuencia en España: Análisis longitudinal con encuestas de victimización", *Revista Española de Investigación Criminológica*, 8. zk., *passim*.


³Gorroto-delituen zifra beltza salatzen ez diren, eta ondorioz, Segurtasun Indar eta Kidegoek ezagutzen ez dituzten delituek osatzen dute. VOZMEDIANO SANZ, L./SAN JUAN GUILLÉN, C., *Criminología ambiental: ecología del delito y de la seguridad*, Editorial UOC: Barcelona, 2010, *passim*.

bera, Oinarritzko Eskubideen Europako Agentziak (FRA ingelesezko sigletan) emandako datuetan oinarrituta, zifra beltz hori % 80 ingurukoa da, erreferentziazko kolektiboen artean aldeak dauden arren⁴.

1.1. GORRITO GERTAKARIEN BANAKETA

1.1.1. GORRITO DELITUEN SAILKAPENA BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA

GORRITO DELITUAK (2016-2022)



Jarraian ikus daitekeenez, kolektiboen mapak aldaketa sakona izan du azken urte honetan. Hala ere, deskribatu aurretik, aipatu behar da txosten honek berrikuntza garrantzitsu bat duela. Lehenengo aldiz, kontuan hartu da gertakari bera talde zaurgarri batekoa baino gehiagokoa izateak eragin dezakeela, eta horri bereizkeria anizkoitza edo intersektionalitatea esaten zaio⁵. Beste era batera esanda, kontuan hartu da gertakari bat aurreiritziko arrazoi batek baino gehiago eragin dezaketela.

Beraz, nahiz eta egia izan gehienetan babestutako ezaugarri bakar batek eragingo duela gorrito-intzidentea, hori ez da beti horrela izaten. Izan ere, batzuetan, biktimei zaila egiten zaie erasoaren eragilea zein izan den aukeratzea, eta, baimentzen zaienean, bat baino gehiago aipatzen dituzte. Horrela, ezin da automatikoki onartu erasotzaileek biktimei eraso egiten dietela talde babestu bakar bateko kide izateagatik⁶.

⁴Zifra beltz handi hori hainbat arrazoiengatik izan daiteke: biktimen salatzeak mes dantza eta beldurra, edota delituak jasotzeaz eta sailkatzeaz arduratzen diren organo publikoek gorrito-delituetan prestakuntzarik ez izatea. Aurrekoari poliziaren aurrean salatzen ez diren gorabeherak gehitu behar zaizkio, baina bai beste instantzia batzuei, hala nola eskaltzari edo guardiako epaitegiei. Horregatik, garrantzitsua da zifra beltza pixkanaka argitzea ahalbidetzen duten beste tresna batzuk ere kontuan hartzea, hala nola biktimizazio-inkestak edo GKEk egindako txostenak. Erabereanekoa bezala (ikus *infra* txosten honen 3. atala) hainbat iturritako datuak ematen dituztenak eta poliziaren estatistiken osagarri direnak. ACHUTEGUI OTALAU-RRUCHI, P., "Victimización de los delitos de odio. Aproximación a sus consecuencias y a las respuestas institucional y social", *Revista de Victimología/Journal of Victimology*, zk. 5, 2017, 36 or. eta hurrengoak. Ikus ere, LANDA GOROSTIZA, J.M., "El mapa de odio, ... op. cit., 6. or. eta hurrengoak.

⁵MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime. Understanding communities and prejudice*, Routledge, Oxon, 2017, 120 or.; PERRY, B./SCRIVENS, R., "The Maturation of Hate Crime Scholarship", BEAN, P., *Hate Crime: Critical Concepts in Criminology*, Routledge, Oxon, 2017, *passim*.

⁶CHAKRABORTI, N., "Framing the boundaries of hate crime", HALL, N./CORB, A./GIANNASI, P./GRIEVE, J., *The Routledge International Handbook on Hate Crime*, Routledge, Oxon, 2015, 13-23 or.; LEVIN, J./MCDEVITT, J., *Hate Crimes. The Rising Tide of Bigotry and Bloodshed*, Plenum Press: Nueva York, 1993, *passim*; PERRY, B./SCRIVENS, R., "The Maturation of Hate...", op. cit., *passim*.


Gorrotoak eragindako biktimizazio-esperientziaren errealitatea ezagutzeko, beraz, kontuan izan behar da gorroto-delituak erasotzaileak hainbat identitate-ezaugarriaren aurkako aurreiritziak bateratzetik etor daitekeela⁷.

Txosten honetan, 9 kasutan erregistratu da lehen aipatutako gorrotoaren ondoriozko biktimizazio bat. Ondorioz, eta, hain zuzen ere, goitik deskribatutako diskriminazio anizkoitzeko kasuen ondorioz, erasotutako kolektibo babestuen aurkako delituen kopurua erregistratutako gorroto-delituen kopurua 444 baino handiagoa da. Zehazki, babestutako kolektibo hauen arteko elkargunea aurkitu da: generoa eta arraza-etnia ($n=4$), arraza-etnia eta sexu-orientazioa edo identitatea ($n=3$), ideologia eta sexu-orientazioa edo identitatea ($n=1$), eta arraza-xenofobia eta arraza-xenofobia ($n=1$). Horregatik, aurrerantzean, kolektiboaren arabera batura osoa egiaztatzerakoan, zifrek, batzuetan, konprometitutako gertakariak baino kopuru handiagoa islatuko dute azken kopuruan, zenbaketari diskriminazio bikoitz hori gehitzen baitaiz.

Orain, ordea, gorroto-delituen sailkapenari erreparatzen badiogu, babestutako kolektibo erasotuaren arabera, izaera arrazista edo xenofoboa duten delituek, aurreko urteen ildotik, erregistratutako delitu gehienak biltzen jarraitzen dute ($n=231$; %52,03), eta aurreko urtekoa baino intzidentzia txikixeagoa dute.

Horien atzetik, sexu-orientazioaren eta -identitatearen aurkako delituak daude ($n=96$ ⁸; %21,62), delitu arrazista eta xenofoboetatik oso urrun, eta horiek ere aurreko urteko ehunekoa baino zertxobait txikiagoak dira. lazko emaitzen ondoren, berretsi egin da sexu-orientazioaren eta -identitatearen aurkako delituek bigarren kolektibo biktimizatuenaren posizioa sendotu dutela.

DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=444)




⁷CHAKRABORTI, N./GARLAND, J. "Reconceptualising hate crime victimisation through the lens of vulnerability and difference", *Theoretical Criminology*, 16. bol., 4. zk., 2012, 499-514. or.

⁸Kontaketa, intersektionalitatea (diskriminazio anitza) kontuan edukitzearen ondorioa besterik ez da.

2021arekiko alderik handiena hirugarren eta laugarren postuetan dauden kolektiboetan dago. Hirugarrenik, 2021ean bezala, biktimaren sexuan edo generoan oinarritutako gorrito-delituak daude, aurreko urtean lortutakoaren bikoitza den ehunekoarekin ($n=68$; %15,32). Aldagai hori duela lau urte jasotzen hasi zirenetik, kolektibo horren aurkako gorrito-delituak izan duten gorakadarik handiena izan da, orain arte ia ez baitute aldaketarik izan.


Laugarrenik, ideologia dugu ($n=33$; %7,66), eta horren ehunekoa ere bikoitzu egin da 2022an, 2021ean nabarmen jaitsi ondoren. Bestalde, aporofobia ($n=1$), erlijio-sinesmenak eta -praktikak ($n=3$), dibertsitate funtzionala ($n=9$), adina ($n=1$) eta beste batzuk kategoria ($n=1$) dira erregistratutako delituen %3,4.

DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2016-2022)



Hortik ondorioztatzen da aurten izandako gorrito-delituen gorakada ez dela arraza-/etnia-diskriminazioko delituetan soilik oinarritzen, eta ez direla sexu-orientazioan eta -identitatean oinarritzen; izan ere, generoan eta ideologian oinarritutako delituak ere nabarmen ugartu dira, gainerako kolektiboak baino neurri handiagoan.


ARRAZISMO-XENOFOTIAKO DELITUAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=231)



Arrazakeria- eta xenofobia-delituei buruzko datuei dagokionez, honako kolektibo hauetan bana daitezke: arabiarra ($n=68$; %29,44), asiarra ($n=5$; %2,16), zuria ($n=3$; %1,3), ijitoa ($n=10$; %4,33), beltza ($n=39$; %16,88), latindarra/latinoamerikarra ($n=43$; %18,61), nazionalitatea/jatorria ($n=42$; %18,18), eta identifikatu gabea ($n=21$; %9,09).

Azkenik, aniztasun funtzionalagatik biktimizatutako pertsonen dagokionez, biktimizazioa honako kategoria hauetan banatzen da: dibertsitate funtzional psikikoa ($n=2$), dibertsitate funtzional fisikoa ($n=4$), dibertsitate funtzional mentala ($n=1$), dibertsitate funtzional sentoriala ($n=1$) eta zehaztu gabea ($n=1$).

DIBERTSITATE FUNTZIONALAREN AURKAKO DELITUAK KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, $N=9$)



1.1.2 GORROTO DELITUEN SAILKAPENA DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA


Delitu-tipologia nagusienei dagokionez, hurrengo grafikoak adierazten du lesioak ($n=180$, %41,38), direla nagusi, gainerako tipologiak baino askoz kopuru handiagoarekin; mehatxuak ($n=90$, %20,69), derrigortzeak ($n=50$, %11,49), gorroto-diskurtsoa ($n=34$, %7,82), kalteak ($n=21$, %4,83) eta tratu apalesgarria ($n=21$, %4,83) jarraitzen diotelarik. Hala ere, delitu larriagoen prebalentzia, lesioak bezala, zuhurtziaz kontuan hartua izan behar da; izan ere, hainbat ikerketen arabera, hain larriak ez diren gorroto-delituen biktima askok uste dute poliziak “ezin izango dutela asko egin” horrelako delituetan, eta, ondorioz, ez dira salatzen⁹.

Bestalde, gorroto-diskurtsoari dagokionez, deigarria da aurreko urteetako prebalentzia pixka bat berreskuratu izana, 2021ean atzemandako joera sendotuz. Edonola ere, aurreko txostenetan adierazi den bezala, gorroto-diskurtso gisa kalifikatutako kasuak erreserbekin hartu behar dira kontuan, izaten duten ibilbide judizial eskasa dela eta.

Era berean, nabarmentzekoa da 5 sexu-abusu delitu eta hilketa kasu bat (burutu gabea) egon direla.

⁹MASON, G./MAHER, J./MCCULLOCH, J./PICKERING, S./WICKERS, R./MCKAY, C., *Policing hate crime*, ... op. cit., 89 or.

DELITU TIPOLOGIAK (2022, N=435)



Hurrengo taulak erakusten du nola multzokatu diren delitu-tipologia desberdinak:

Sexu-erasoak: ZK-ko 181. eta 183. artikulua¹⁰.

Mehatxuak: ZK-ko 169., 170. y 171. artikulua.

Kalumniak: ZK-ko 206. artikulua.

Derrigortzeak: ZK-ko 172. artikulua.

Ebasketa: ZK-ko 234. artikulua.

Kalteak: ZK-ko 263 eta 266 artikulua.

Prestazioak ukatzea: ZK-ko 511. artikulua

Sekretuak ezagutarazi eta agerraraztea: ZK-ko 197. artikulua.

Maula: ZK-ko 248. artikulua.

Kontzientzia-askatasunaren aurkako delitua: ZK-ko 522. artikulua.

Langileen eskubideen aurkako delitua: ZK-ko 311. artikulua.

Gorroto-diskurtsoa: ZK-ko 510. artikulua.

Gizahilketa: ZK-ko 138. artikulua.

Ebasketa: ZK-ko 234. artikulua.

Irainak: ZK-ko 209. artikulua.

Lesioak: ZK-ko 147. eta 153. artikulua.

Agintaritzaren aurkako jarkitzea edo atentatua: ZK-ko 550. eta 556. artikulua.

Lapurreta: ZK-ko 242. artikulua.

Bahiketa: ZK-ko 164. artikulua.

Tratu apalesgarria: ZK-ko 173. artikulua.


Armak edukitzea: ZK-ko 563. artikulua ZK.

Tortura: ZK-ko 175. Artikulua.

Z00: Delitu-esleipenik gabeko gertakaria.

¹⁰Jakina den bezala, Sexu Askatasunaren Berme Integralari buruzko irailaren 6ko 10/2022 Lege Organikoak ezabatu egin du sexu-erasoen eta -abusuen arteko bereizketa, eta sexu-erasotzat hartu ditu beste pertsonaren baimenik gabe sexu-askatasunaren aurka egiten duten jokabide guztiak. Horrela, Espainiak bete egin ditu 2014an Istanbulgo Hitzarmena berretsi zuenetik hartutako betebeharrak. Horregatik, txosten honetan izendapen horri eustea erabaki da, eta ez bereiztea antzinako sexu-abusuak eta sexu-erasoak, nahiz eta bateratze hori ez zegoen indarrean gertakari horietako batzuk gertatu zirenean.


Hurrengo grafikoan delitu-tipologiaren bilakaera 2016tik gaur egunera arte erakusten da¹¹. Bertan ikus daitekeenez, tipologia jakin batzuen burutzeak aldaketa handirik izan ez duen bitartean, kasuen erregistroa handitu arren (adibidez, agintaritzaren aurkako jarkitzea/atentatua), delitu-tipologia gehienek gorabehera handiak izan dituzte. Hori da lesioen kasua; 2017an nabarmen handitu eta 2018an mantendu ondoren, 2019an beherakada handia izan dute, eta 2020an, 2021ean eta 2022an, berriz, nabarmen handitu dira. Antzeko zerbait argudia daiteke mehatxuei dagokienez, zeinak 2017an behera egin zuten, 2018an apur bat handitu ziren, 2019an berriro jaitsi ziren, 2020an, 2021ean eta 2022an asko handitu ziren.



Jarraian, delitu-tipologia nagusiak aztertzen dira, hau da, mehatxuak, derrigortzeak, gorroto-diskurtsoa, eta lesioak, kolektibo desberdinekiko, kolektibo batzuek beste batzuek baino delitu mota batzuk jasateko joera handiagoa duten jakiteko. Hala, datuek erakusten dute arraza-kolektiboa dela mota horretako delituak gehien jasaten dituen.

¹¹Grafi oan urteetan zehar jarraitutasuna izan duten delitu-tipologiak bakarrik islatu dira, hots, aztertutako urte guztietan agertu diren tipologiak, urte batean edo bitan bakarrik agertzen zirenak alde batera utzita.

DELITU-TIPOLOGIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022)





1.1.3. GORROTO DELITUEN BANAKETA ESPAZIALA

434 delituak lurralde historikoetan zehar banatzeko moduari dagokionez, ondorengo grafikoak erakusten du Bizkaia gorrito-delituen erdia baino gehiago kontzentratzen dituela ($n=243$); Gipuzkoan laurden bat ($n=128$), eta Araban zortziren bat baino pixka bat gutxiago ($n=56$) biltzen diren bitartean. Honetaz gain, kasu bat beste probintzia batean gertatu da (zehazki, Kantabrian), 4 egite-lekua ezezaguna da eta 2 atzerrian gertatu dira.

DELITUAK LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2022, $N=435$)

LOKALIZATU GABE/BESTE PROBINTZIAK






¹³ Informazio gehiago behar izanez gero, ikus ESTATISTIKAKO INSTITUTU NAZIONALAREN (INE) web orria, Bizkaiko biztanleriaren zifra ofizialak jasotzen dituen kontsultarako: <https://www.ine.es/jaxi/T3/Datos.htm?i=2905>


¹⁴Informazio gehiagorako, ikus Espainiako Estatistika Institutuaren (INE) webgunea, Gipuzkoako biztanleriaren zifra ofizialak jasotzen dituen: <https://www.ine.es/jaxiT3/Datos.htm?t=2873#Itahs-tahla>

ARRAZISMO-XENOFOBIA LURRALDE HISTORIKO ETA ETNIAREN ARABERA (2022, N=231)



Biktimaren dibertsitate funtzionalean oinarrituta egindako kasuei dagokienez, modu homogeneoan banatzen dira, 3 kasu lurralde historiko bakoitzeko.

JATORRIZKO LURRALDE HISTORIKOAREN ETA KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=9)



Biktimaren sexu-orientazioan eta identitatean oinarritutako delituei dagokienez, gehienak (61) Bizkaian erregistratu ziren, 8 Araban eta 25 Gipuzkoan. Biktimaren sexuagatik/generoagatik egindako gorroto-delituetatik 47 Bizkaian gertatu ziren, 8 Araban, 12 Gipuzkoan eta 1 beste probintzia batzuetan (zehazki, Kantabrian, aipatu bezala).


Ertzaintzak erregistratutako ideologia eta/edo orientazio politikoaren aurkako 34 delituei dagokienez, 23 Bizkaian gertatu ziren, 3 Araban, 5 Gipuzkoan, 1 atzerrian eta bi kasutan ez dakigu non gertatu zen.

Hurrengo laburpen-etaulak eta grafikoak kolektibo desberdinen aurkako gorroto-delituak egin dituzten lurralde historikoak erakusten dituzte, baita, laburpen-taularen kasuan, aurreko urtearekin alderatuta izan duten aldakuntza ere.

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	BESTE PROBINTZIAK ¹⁶	ATZERRIA	EZEZAGUNA	GUZTIRA	+ (2021)	%
ANTISEMITISMOA	-	-	-	-	-	-	0	0	0
ADINA	-	-	1	-	-	-	1	1	%100
SINISMEN / PRAKTIKA ERLOJIOSOAK	1	1	1	-	-	-	3	0	0
APOROFOBIA	1	-	-	-	-	-	1	-1	%-50
GENEROA	8	47	12	1	-	-	68	51	%300
IDEOLOGIA/ ORIENTAZIO POLITIKOA	3	23	5	-	1	2	34	24	%240
DIBERTSITATE FUNTZIONALA	3	3	3	-	-	-	9	-1	%-10
SEXU-ORIENTAZIO/ IDENTITATEA	8	61	25	-	-	-	96 ¹⁸	23	%31,5
ARRAZISMOA/ XENOFOBIA	32	113	77	-	1	2	231	69	%42,6
BESTEAK	-	1	-	-	-	-	1	1	%100
GUZTIRA	56	244	128	1	2	4	435	158	%57,04

¹⁶Beste probintzia batzuk izenak Ertzaintzak identifikatu ezin izan dituen delituei egiten die erreferentzia (adibidez, Internet bidez egin direlako), bai eta delitua beste probintzia batean egin zen kasuei ere, salaketa Euskadin jarri bazen ere. Kasu zehatz honetan, gorago adierazi den bezala, kategoria honetan sailkatutako kasu bakarrak Kantabrian erregistratutako gertakari bati egiten dio erreferentzia.

DELITUAK LURREALDE HISTORIKO ETA KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=435)



Hurrengo grafikoa, gorrito-delituen banaketa ere aztertzen da, ikuspegi espazialek, baina, kasu honetan, delitu horien lekuan jartzen da arreta. Ikus daitekeenez, bide publikoek komisio-lekuen herena baino gehiago biltzen dute, zehazki, kasuen %43,45an.

Nolanahi ere, bide publiko gisa sailkatutako agertokiak kokapen zehatza galde genezake. Izan ere, nahiz eta, stricto sensu, egite-leku batzuk espazio publiko gisa etiketatu daitezkeen (kaleak, bidezidorrak, parkeak, etab.), hainbat ikerketak erakutsi dute polizia-estatistikek horrela deitzen dutena askotan biktimaren etxetik oso hurbil dauden agertokiak direla¹⁷.

Gertaera hori, hau da, gorrito-delituen ehuneko handi bat biktimaren etxebizitzan edo inguruetan gertatzea, erabakigarria da, gainera, kasu horietan erasoaren ondoriozko inpaktu psikologikoa handiagoa izan baitaiteke¹⁸, eta biktima-
ren familiari ere eragin diezaioke¹⁹.

¹⁷Ikus, zentzu honetan, datoen ikerketak MASON, G., "Being hated: Stranger or familiar?", *Social & Legal Studies*, 14. bol., 4. zk., 2005, 593-594 or.; MCDEVITT, J./BALBONI, J./GARCIA, L./GU, J., "Consequences for victims: A comparison of bias- and non-bias-motivated assaults", *American Behavioral Scientist*, 4. bol., 4. zk., 2001, *passim*.

¹⁸SCHEPPELE, K. L./ BART, P. B., "Through women's eyes: Defining danger in the wake of sexual assault", *Journal of Social Issues*, 39. bol., 2. zk., 1983, *passim*.


¹⁹CHAKRABORTI, N./GARLAND, J./HARDY, S. J., *The Leicester hate crime project: Findings and conclusions*. University of Leicester, Leicester, 2014, *passim*.

Etxebizitzak, ordea, komisio-lekuen %15,17 dira. Aurrekoari beste etxebizitza edo eremu komun gisa izendatzen diren espazioak gehitzen bazaizkio²⁰, eremu horietan gertatutako gorroto-delituaren guztizkoa %17,93 da. Hirugarrenik, ostalaritzako, aisialdiko eta antzeko lokalak daude, portzentaian aurreko urtean baino zertxobait gehiago.

Aurrekoaren azalpen posible bat biktimen ohiko jardueretan aurki daiteke; izan ere, biktimek beren eguneroko bizitzan gehien erabiltzen dituzten lekuek, hala nola beren etxearen ingurukoek edo normalean erabiltzen dituzten merkataritza- edo elikadura-establezimenduetakoek, gorroto- delituaren agertoki izateko probabilitate handiagoa dute²¹.

Nabarmentzekoa da 26 delitu soilik erregistratu direla Interneten eta telefonoz, delituaren %5,98 bildu baitira, 2021ekoaren antzeko ehunekoarekin.

DELITUAK LEKUAREN ARABERA (2022, N=435)




²⁰ Atal hau zentzu zabalean ulertu behar da, etxebizitzatik hurbil dauden espazioak hartzen baititu, hala nola eraikinaren ataria, eskailerak eta eskailera-buruak, postontzia, etab.


²¹ MCNEELEY, S./OVERSTREET, S. M., "Lifestyle-routine activities, neighborhood context, and ethnic hate crime victimization", *Violence and Victims*, 33. bol., 2018, 16. or. eta hurrengoak.

Jarraian, gertakaria burutu den lekuei buruzko datuak aurkezten dira, biktimizatutako kolektiboaren arabera. Horretarako, lehenetsuna eman zaie egite-leku ohikoenei, hau da, bide publikoari eta etxebizitzari. Bide publikoari eta etxebizitzari dagokienez, ondorioztatzen da bi lekuetan gorrito-delitu ohikoenak arrazistak eta xenofoboak direla (%48,68 bide publikoaren kasuan eta % 63,64 etxebizitzaren kasuan).

ETXEBIZITZAN ETA HIRI BIDE PUBLIKOAN GERTATURIKO DELITUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=255)




DELITUAK LEKUA ETA KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=435)




1.1.4. GORROTO DELITUEN DENBORA-BANAKETA

Jarraian, delituen hileko banaketa aurkezten da, urtaroen, astearen eta ordutegiaren arabera. Abuztuan gertatu dira gorroto-delito gehien (%20,46), eta jarraian apirila (%10,57) eta maiatza (%10,34) datoz.




Bigarrenik, delituen banaketa aztertzen da, delituak egin ziren urtarorekin eta erreferentziako kolektiboaren arabera. Ikus daitekeenez, gorroto-delitu arrazistak edo xenofoboak nagusi dira urtaro guztietan, udan izan ezik, nahiz eta urtaro horretan erregistratu diren gorroto-delitu gehien. Estazio horretan, gainera, nabarmen handitu zen generoa dela-eta egindako delituen ehunekoa. Nolanahi ere, badirodi estazioa erreferentzia-unitate gisa aztertzeak ez duela eragin handiegirik, salatutako gertakariei dagokienez behintzat.

DELITU-TIPOLOGIAK URTAROAREN ARABERA (2022, N=435)



Hirugarrenik, asteko banaketari buruzko datuek adierazten dute gorrito-delitu gehienak asteartean (%14,25), ostira-lean (%14,48), larunbatean (%15,63) eta igandean (%17,24) izaten direla.


DELITUAK ASTEKO EGUNAREN ARABERA (2022, N=435)



Aurreko horretatik ondorioztatzen da gorrito-delituen ia erdia asteburuan gertatzen direla. Horren arrazoia izan daiteke egun horietan jendeak denbora askoz gehiago igarotzen duela etxetik kanpo eta merkataritza- eta aisialdi-guneak maiz bisitatzen dituela, eta horrek areagotu egiten ditu biktimak eta erasotzaile potentzialekin topo egiteko aukerak.

Azkenik, ordu-banaketari dagokionez, gorrito-delitu gehienak arratsalde-gauean pilatzen dira berriro (%60,69 12:00etatik 12:00etara), aurreko urtean baino ehuneko handixeagoarekin. Horren arrazoia izan liteke, hain zuzen ere, ordu-tarte horretan dagoela jende gehien katean, dela lanetik itzultzen, dela aisialdiko hainbat jarduerara egiten (tabernetara eta merkataritza-guneetara joatea, kirol-jarduerak egitea, etab.), eta horrek erraztu egin dezake biktimen eta erasotzaile potentzialen arteko topaketa eta gatazka.


DELITUAK ORDUAREN ARABERA (2022, N=435)



Nabarmentzekoa da, halaber, 12: 00etatik 6:00etara egindako delituen ehunekoa hirukoiztu egin dela urte horretan, 2021eko % 8.3 izatetik 2022ko %26,44 izatera igaro baita.

Ordu-tarteak erreferentziazko kolektiboaren arabera banakatzen badira, ikusten da tarte gehienetan arrazoi arrazista/xenofoboengatik egindako delituak direla nagusi, antzeko ehunekoarekin. Salbuespena 00:00-05:59 tartea da. Tarte horretan, generoagatik egindako delituak dira nagusi, eta, ondoren, orientazio eta identitate sexualagatik eta arrazismo-xenofobiagatik egindako delituak, hirurak antzeko ehunekoarekin.

Azken batean, apartadu honetan esandakoa gorabehera, egun, aste edota hilabeteen gertakari-banaketa ez dago momentuz, oro har, molde argigarrien arabera azaltzerik datu estatistiko esanguratsuen faltan.




1.2. EGOZPENEN BANAKETA²²

Egotzitako pertsonen dagokienez²³, hurrengo grafikoak erakusten du erdia baino gehiago espainiarrak direla (%73,98): 246 pertsonatik 182, horietatik 148 Euskadikoak (%81,32). Gainerako egozpenak, 64, atzerritar jatorrikoak dira (%26,01); horietatik gehienak Afrikakoak dira (%54,69) eta, neurri txikiagoan, Erdialdeko eta Hego Amerikakoak (%23,44).

²²Egotziak -edo ikertuak, 13/2015 Lege Organikoaren bidezko Prozedura Kriminaleko Legearen erreformaren ondoren- delitu bat burutzea egotzi zaien pertsonak dira, zeinekiko Ertzaintzak polizia-eginbideak ireki dituen.


²³Aurkeztutako zifrak Ertzaintzak identifikatu zituen egotzitako pertsonen dagozkie, jatorria edozein dela ere. Kontuan hartu behar da 435 delituetatik 212tan erasotzailea ezin izan zela identifikatu (%48,74), eta, beraz, ez zela egotzitako edo atxilotu gisa sailkatu. Era berean, hainbat kasutan delitu bakoitzeko pertsona bat baino gehiago egotzi/atxilotu da. Bestalde, ikerketa honen ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko Euskadin gorroto-deliturik burutu ez duten pertsonak, nahiz eta gorroto-delitu bat burutu eta jatorri-lekua Euskadin izan.

EGOTZIAK JATORRIKO HERRIALDEAREN ARABERA (2022, N=246)




Jatorrizko lurralde historikoari dagokionez, Bizkaitik etorritako egotzien kopuruak biltzen ditu kasu gehienak (%42,86). Arabari dagokionez, 2022an erregistratutako kasuen hamarren bat biltzen du (%10,43). Gipuzkoatik datozenek, aldiz, Euskadin jasotako egozpenen ia herena osatzen dute (%28,02).

EGOTZIAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2022, N=182)




Jarraian, udalerri mailako ikerketen banaketa erakusten da. Seigarren urtez jarraian, lurralde historikoetako hiriburuak nabarmentzen dira: Gasteiz ($n=11$), Bilbo ($n=23$) eta Donostia ($n=26$). Bestalde, nabarmentzekoa da Barakaldon ($n=28$) probintzia-hiriburu guztietan baino egotzitako gehiago daudela.

EGOTZIAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2022, $N=148$)




Sexuaren arabera banaketari dagokionez, hurrengo grafikoak adierazten du 2022an 56 emakume (%22,76) eta 189 gizon (%76,82) egotzitako zirela. Ezin izan da ikertutako pertsona baten sexua identifikatu (%0,41). Nabarmentzekoa da egotzitako emakumeen ehunekoak 2020an hasitako beheranzko joerari jarraitzen diola.

EGOTZIAK SEXUAREN ARABERA (2022, $N=246$)




Egotzitako pertsonen batez besteko adina 38,41 urtekoa da, eta adin-tartea 13 eta 84 urte artekoa, 2021ean bezala. Egozpenak nahiko modu homogeneoan banatzen dira tarte hauetan: 18-29 urte (%26,02), 30-39 urte (%19,51), 40-49 urte (%21,95) eta 50-59 urte (%13,01), hau da, kasuen %80,49. Gainerako adin-tarteei dagokienez, 60 urtetik gorako pertsonak gainerako %10,98 osatzen dute, aurreko urteetan baino zertxobait gehiago. Era berean, azpimarratu behar da 18 urtetik beherakoen taldean, 2020tik 2021era bitartean bikoiztu egin ondoren, egotzitako adingabeen kopurua heren bat jaitsi dela 2022an, 21 adingabe (%8,54) egotzi direlarik urte horretan.

EGOTZIAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2022, N=246)




Hala ere, datu horiek sexuaren arabera banakatzen badira, ikus dezakegu gizonetakoak direla nagusi, alde handiz, adin-tarte guztietan, 70 eta 79 urte bitarteko egotzitakoak kasuan izan ezik. Gizonen nagusitasun hori bereziki nabarmena da 18-29 urteko adin-tartean, 2021ean gertatzen zen moduan, gizonen kopurua emakumeena baino zortzi aldiz handiagoa izanik.

EGOTZIAK ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2022, N=245)



Era berean, hurrengo grafikoan ikus dezakegu egozpen gehienak arrazakeriaren eremuan gertatu direla ($n=166$, %67,68); baina hori ez da harritzekoa, kontuan hartzen badugu gorroto-delitu gehienek motibazio hori dutela (%52,14). Jarraian, zifra lau aldiz txikiagoa bada ere, biktimaren sexu-orientazioagatik eta sexu-identitateagatik buru-turiko gorroto-delituetan oinarritutako ikerketak daude ($n=43$, %17,48), eta horiek ere biktimizatuen dagoen bigarren kolektiboa osatzen dute (% 21,67).


EGOTZIAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=246)



Azkenik, egotzien delitu-tipologiaren arabera banaketari dagokionez²⁴, aurreko urtean ez bezala, egozpen gehienak lesioekin lotuta gertatu dira (%37,4), eta, gorago adierazi dugunez, delitu-kategoria hori da nagusi. Bigarren eta hiru-garren lekuan daude mehatxuak (% 26,83) eta derrigortzeak (% 14,63) egotzita dauden pertsonak.

²⁴Delitu motaren arabera erasotzaile kopuruari buruzko ikuspegi orokorra izateko, atxilotutako pertsonen buruzko grafi-oa ere kontuan hartu behar da.


EGOTZIAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2022, N=246)



1.3. ATXILOKETEN BANAKETA


2022an, Ertzaintzak 44 pertsona atxilotu zituen, aurreko urtearen bikoitza baino gehiago. Jatorriari dagokionez, datuek heterogeneotasun handiagoa erakusten dute 2021eko datuekin alderatuta; izan ere, atxilotutako pertsonen bi heren baino gehiago atzerritarak dira ($n=30$, %68,18), gehienak Aljeriatik eta Marokotik etorritakoak (%20,45 eta guztizkoaren %27,27).

ATXILOTUAK JATORRIKO HERRIALDEAREN ARABERA (2022, N=44)




Espainiako nazionalitatea duten 14 atxilotuetatik, %92,85 ($n=13$) Euskaditik datoz. Euskal jatorriko atxilotu gehienak Bizkaikoak ($n=7$, %50) eta Gipuzkoakoak ($n=5$, %35,71) dira. Jatorrizko udalerriari dagokionez, gehienak Donostiakoak ($n=4$) eta Barakaldokoak ($n=4$) dira.

ATXILOTUAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2022, $N=14$)




ATXILOTUAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2022, $N=13$)




Demografiari dagokionez, nabarmentzekoa da atxilotutako pertsona gehienak gizonak izan zirela (%93,18), aurreko urtearen antzeko ehunekoarekin.

ATXILOTUAK SEXUAREN ARABERA (2022, N=44)




Batez besteko adina 27,78 urte da, aurreko urtekoa baino askoz txikiagoa; eta adin-tartea 17 eta 56 urte artekoa da. Adin-tarteen banaketari dagokionez, hurrengo grafikoan ikus daiteke 18 eta 29 urte bitarteko pertsonak (%45,45) direla nagusi bereziki. Gainerako atxilotuei dagokienez, honako adin-tarte hauetan banatzen dira: adingabeak (%20,45), 30-39 urte (%11,36), 40-49 urte (%15,91) eta 50-59 urte (%6,81).

ATXILOTUAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2022, N=44)




Jarraian, atxiloteta gehien izan dituzten kategoriak kontuan hartuta, aurten atxiloteta gehienak sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen eremuan (%58,82), eta arrazakeriaren eta xenofobiaren eremuan (%38,64) gertatu direla ikus daiteke

ATXILOTUAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=44)



Azkenik, atxilotuen delitu-tipologiaren arabera banaketari dagokionez, hurrengo grafikoan lesioak (%31,82) eta mehatxuak (%18,18) nabarmentzen dira atxiloteta gehienen arrazoi gisa.


ATXILOTUAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2022, N=41)



1.4. BIKTIMIZAZIOEN BANAKETA²⁵

Biktimen %50-ak espainiar nazionalitatea dute (572tik 286), eta horietatik gehienak, ia %79,02, Euskadikoak dira (226 kasu). Bestalde, gainerako erdia atzeritar jatorriko biktimak dira. Azken horiei dagokienez, Latinoamerikatik eta Afrikatik etorritako biktimak dira ugariak (biktima guztien %16,05 eta %26,19, hurrenez hurren). Afrikatik datozen biktimei dagokienez, aurreko urtean bezala, nabarmentzekoa da marokoar jatorriko pertsonen presentzia handia, gorrito-delituaren biktimen %15,03 baitira.


BIKTIMAK JATORRIKO HERRIALDEAREN ARABERA (2022, N=572)



²⁵Kasu honetan, ikertuen eta atxilotuen kasuan gertatzen zen bezala, biktimizazioen kopurua ez dator bat gorrito-delituaren benetako kopuruarekin, hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, 22 kasutan ezin izan zen biktima zehatza identifikatu. Bestetik, gertakarietako batzuek biktima zuten bat baino gehiago izan zituzten.


Jarraian, biktimak Espainiako Estatuko jatorrizko lurraldearen arabera nola banatzen diren aztertuko da. Datuek erakusten dute Bizkaiak biltzen dituela berriz ere biktimizazio gehienak (%47,2), alde handiarekin, baina 2021ean baino ehuneko txikiagoarekin. Gipuzkoatik datozen biktimak ia bikoiztu egin dira 2022an (%25,87), eta Arabako biktimak erdira murriztu dira aldi horretan bertan (%5,94). Estatuko beste toki batzuetatik datozen Espainiako biktimen ehunekoa, ordea, egonkor samar mantendu da aurreko urtearekin alderatuta (%20,98).

BIKTIMAK JATORRIKO LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA (2022, N=286)




Biktimen Euskadiko jatorrizko udalerriari dagokionez, probintzia-hiriburuak nabarmentzen dira: Bilbo (41 kasu), Donostia (20 kasu) eta, neurri txikiagoan, Gasteiz (14 kasu). Bestalde, aurreko urteetan bezala, aurtan ere nabarmentzen da Barakaldo (23 kasu), biktimen jatorrizko udalerri gisa.

BIKTIMAK JATORRIKO UDALERRIAREN ARABERA EUSKADIN (2022, N=226)




Jarraian, biktimen sexuari erreparatzen badiogu, ikus dezakegu biktima gehienak gizonak direla ($n=308$). Nolanahi ere, ikusten da 2019tik biktima diren emakumeen kopuruak gora egin duela ($n=264$ 2022an), 2018koaren antzeko ehunekora iritsi arte, hau da, orain arteko maximora.

BIKTIMAK SEXUAREN ARABERA (2022, $N=572$)




Maila demografikoan, batez besteko adina 31,56 urtekoa da, 2021ean baino 6 urte gutxiago batez beste. Zehazki, biktima gehienak honako adin-tarte hauetan biltzen dira: <18 urte (%16,08), 18-29 urte (%36,01), 30-39 urte (%18,36) eta 40-49 urte (%16,96). Gainerako adin-tarteei dagokienez, 50 eta 59 urte bitarteko adin-tarteak kasuen % 8,57 zenbatzen du, eta zahartzaroaren kategoriak (>60), berriz, % 4,02. Azken batean, adin-tartea 8 eta 84 urte artekoa da.

BIKTIMAK ADIN-TARTEAREN ARABERA (2022, $N=572$)




Hala ere, datu horiek sexuaren arabera banakatzen badira, ikus daiteke, ikertuen kasuan gertatzen zen bezala, gizonak direla nagusi adin-tarte baxuenetan, batez ere adingabeen eta 30-39 urteko biktimen kasuan. Adin-tarte horretatik aurrera, ordea, gizonen eta emakumeen ehunekoa berdintzen doa; izan ere, emakumeak gizonak baino gehiago dira 50 eta 59 urte bitartean.

BIKTIMAK ADIN-TARTEAREN ETA SEXUAREN ARABERA (2022, N=572)



Bestalde, hurrengo grafikoak adierazten duen bezala, biktimizazioen erdiak baino gehiago arrazakeriaren eremuan gertatu dira ($n=328$, %57,34)²⁶, eta, ondoren, biktimaren orientazio eta identitate sexualaren ondorioz sortutako biktimizazioak daude ($n=124$, %21,68). Logikoa da hori, kontuan hartzen badugu, hain zuzen ere, azken urtean gorrito-delitu gehien jasan dituzten kolektiboak direla. Hirugarren, laugarren eta bosgarren tokian, sexu-arrazoiengatik biktimizazioak ($n=70$, %12,24), biktimaren dibertsitate funtzionalarengatik ($n=10$, %1,75) eta ideologia eta orientazio politikoarengatik ($n=34$, %5,94). Azkenik, aporofobiak, adinak eta beste batzuek eragindako biktimak daude, kategoria bakoitza biktima batekin (%0,17).


BIKTIMAK BABESTUTAKO KOLEKTIBOAREN ARABERA (2022, N=572)



²⁶Ildo horretan, nabarmendu behar da beren arraza/etniagatik biktimizatutako pertsonen %67,38 atzeritarrak direla, eta gainerako % 32,62k espainiar nazionalitatea dutela.

Azkenik, biktimak delitu-tipologiaren arabera banatzeari dagokionez, hurrengo grafikoak erakusten du lesioak ($n=238$, %41,61) eta mehatxuak ($n=119$, %20,8) jasan dituzten biktimak biktimen erdia baino gehiago direla (%62,41). Hirugarren, laugarren eta bosgarren tokian daude derrigortzeak ($n=63$, %11,01), gorroto-diskurtsoa ($n=41$, %7,17) eta tratu apalesgarria ($n=31$, %5,42), hurrenez hurren..

BIKTIMAK DELITU-TIPOLOGIAREN ARABERA (2022, N=572)



1.5. ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOEN BANAKETA

Hasieran azaldu den bezala, 2022an 3 arau-hauste administratibo erregistratu ziren, guztiak kirol ikuskizunetan egon daitezkeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako uztailaren 11ko 19/2007 Legearekin lotuta.

Hiru arau-haustek irain arrazista edo xenofoboengatik dira; horietako lehena pertsona baten aurka egin zen, beltza zelako, eta gainerako biak biktimen nazionalitateagatik/jatorriagatik. Gainera, arau-hauste guztiak futbol-zelai edo estadio batean burutu ziren.

Aipatutako lehen arau-hauste administratiboari dagokionez, 2022ko otsailaren 20an (igandea) burutu zen, 15:00ak inguruan, Eibarren. Egilea 68 urteko gizon bat izan zen, Dominikar Errepublikakoa, eta biktima ere gizona zen.

Bigarren arau-hauste administratiboa otsailaren 27an (igandea) burutu zen, arratsaldeko seiak inguruan, Donostian. Egileak 20 urteko bi gizon izan ziren, biak Nafarroatik zetozenak, eta biktimak, berriz, hainbat gizonetako.

Azkenik, hirugarren arau-hauste administratiboari dagokionez, martxoaren 6an (igandea) gertatu zen, arratsaldeko bostak inguruan, Lezaman. Egilea 18 urteko gizon bat izan zen, Bilbokoa.

1.6. ONDORIOAK

1.6.1. GORRITO GERTAKARIEN GUZTIZKO KOPURUA

2022an, delitu izan daitezkeen 438 gorrito-gertakari erregistratu dira Euskadin; horietatik 435 (%99,31) gorrito-delituak dira, eta 3 (%0,68) arau-hauste administratiboak.

⁵⁶Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2021eko apirila-2022ko martxoa), 1.067 gorroto-gertakari sektario zenbatu ziren, eta gertakari horiei lotuta 780 delitu erregistratu ziren. 1.067 gorroto-gertakari sektarioetatik, poliziak 688 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 64,48), eta 379 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 35,52). Delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 688 gertakarietatik, aurretik aipatutako 780 delituak ateratzen dira.

⁵⁷Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2021eko apirila-2022ko martxoa), 462 gorroto-gertakari homofobo zenbatu ziren, eta gertaera horiei lotuta 336 delitu erregistratu ziren. 462 gorroto-gertakari homofoboaren artean, poliziak 275 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 59,52), eta 187 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 40,48). Delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 275 gertakarietatik, aurretik aipatutako 336 delituak ateratzen dira.

⁵⁸Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2021eko apirila-2022ko martxoa), 123 gorroto-gertakari zenbatu ziren aniztasun funtzionalarengatik, eta gertakari horiekin lotuta 93 delitu erregistratu ziren. Aniztasun funtzionalagatiko 123 gorroto-gertakarietatik, poliziak 70 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 56,91), eta 53 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 43,09). Delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 70 gertakarietatik, aurretik aipatutako 93 delituak ateratzen dira.

⁵⁹Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2021eko apirila-2022ko martxoa), 65 gorroto-gertakari zenbatu ziren transfobiagatik, eta gertakari horiekin lotuta 42 delitu erregistratu ziren. Transfobiagatiko 65 gorroto-gertakariaren artean, poliziak 39 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 60), eta 26 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 40). Delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 39 gertakarietatik, aurretik aipatutako 42 delituak ateratzen dira.

⁶⁰Urteko argitalpen-txostenaren arabera (2021eko apirila-2022ko martxoa), 68 gorroto-gertakari zenbatu ziren fedeagatik/erlijioagatik, eta gertakari horiei lotuta 54 delitu erregistratu ziren. Fedeagatik/erlijioagatiko 68 gorroto-gertakariaren artean, poliziak 44 erregistratu zituen delitu baten edo gehiagoren burutzearekin lotuta (% 64,70), eta 24 berriz, inguruabarretatik inongo deliturik ondorioztatu gabe (% 35,29). Delitu batekin edo gehiagorekin erregistratutako 44 gertakarietatik, aurretik aipatutako 54 delituak ateratzen dira.

⁶¹Aurrerantzean, estatistika-erreferentzia guztiak honako argitalpen honi egindakotzat jo behar dira: PPSNI, "Statistical bulletin: cases involving hate crime 2021/22", *Policy and Information Unit. Public Prosecution Service for Northern Ireland (PPSNI)*, 2022.

⁶²Kontuan izan kasu horietan pertsona bat edo gehiago egon daitezkeela.

⁶³Delitu-kategoria nagusia (*primary offence*) delitu larrienarekin lotutakoa izango da normalean, lege ezar daitezkeen zehapen penalen arabera zehaztuko dena.

Gainerakoan, kasu bakoitzean pertsona batek baino gehiagok parte hartu ahal izan duten heinean, norbait formalki salatzeak erabakia pertsona horietako edozeinen aurka zuzendu daiteke. Beraz, jarraian datorren sailkapenak PPSk jasotako kasuren batean parte hartu duten pertsona guztien inguruan hartutako erabaki larrienari egiten dio erreferentzia⁶⁴. Guztira, 433 erabaki hartu dira. Larritasun handienekotik txikienera, **25 erabaki (% 5,77) Koronako Auzitegian (Crown Court)**⁶⁵ epaituak izan zitezen pertsonen aurkako karguak aurkezteko izan ziren (indictable prosecution); **218 (% 50,35) Magistratu-Auzitegieta (Magistrates' Courts)**⁶⁶ epaituak izan zitezen pertsonen aurkako karguak aurkezteko (summary prosecution), 39 (% 9) neurri alternatiboak hartzeko (adibidez: mota horretako beste delituen bat eginez gero, neurriak hartuko direla formalki ohartaraztea) auzitegieta jo gabe (diversion), eta 151 (% 34,87) karguak ez aurkezteko (decision for no prosecution), dela behar adina froga-material ez dagoelako, dela karguak aurkezteak interes publikoaren aurka joatea ekarriko lukeelako. Summary prosecution delakoa ardatz hartuta, pertsona gehien barne hartzen dituen erabaki-mota izanik, **125 akusatu kondenatu zituzten**, gutxienez delitu batengatik⁶⁷ [arrazak: 54; sektarismoa: 32; fedea/erlijioa: 16; homofobia: 10; motibazio anizkoitza: 7; transfobia: 4; aniztasun funtzionala: 2], kondena tasa % 61,9 izanik. Bestalde, 31 akusatu (% 15,35) absolbitu zituzten, eta 46 akusaturen kasuan (% 22,77) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.).

Azkenik, fiskal batek, lege-xedapen baten arabera, eta ez izaera polizialeko definizio baten arabera, aurreko guztia kasuan bezala, etsaitasunagatik astundutako gorroto-delitutzat (aggravated by hostility) hartutako kasuei buruzko datuei dagokienez, 299 erabaki hartu dira. Berriz ere, larritasun handienetik txikienera, **25 erabaki (% 8,36) Koronako Auzitegian (Crown Court)** epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko izan ziren (indictable prosecution), **182 (% 60,87) Magistratu-Auzitegieta (Magistrates' Courts)** epaituak izan zitezen pertsonen aurka karguak aurkezteko (summary prosecution), 23 (% 7,69) neurri alternatiboak hartzeko auzitegieta jo gabe (diversion), eta 69 (% 23,08), karguak ez aurkezteko erabakiak (decision for no prosecution) izan ziren. Berriz ere summary prosecution delakoa ardatz hartuta, **116 akusatu kondenatu zituzten** gutxienez delitu batengatik [arrazak: 65; erlijioa: 27; sexu-orientazioa: 19; motibazio anizkoitza: 3; aniztasun funtzionala: 2], kondena tasa % 68,2koa izanik. Bestalde, 23 akusatu (% 13,53) absolbitu zituzten, eta 31 akusaturen kasuan (% 18,23) beste egoera batzuk gertatu ziren (adibidez: akusatuaren heriotza, akusazioak atzera egitea, etab.).

2.1.4. BESTE DATU BATZUEN EGUNERATZEA: INGALATERRA ETA GALES⁶⁸

Inglaterra eta Galesen gorroto-delituei buruzko informazio estatistikoaren irudi osatuagoa lortzeko, bi iturri ofizial hartuko ditugu kontuan, oso desberdinak beraien artean, bakoitza bere mugekin.

Lehenik eta behin, *Crime Survey for England and Wales* (CSEW)⁶⁹. Aurrez aurreko biktimizazio-inkesta bat da, Inglaterran eta Galesen bizi diren horien esperientzia pertsonalei buruzko informazioa ematen duena. Helburu horrekin, azken hiru urteko inkesten datuak konbinatzen dira, lagin handiagoa lortzeko eta estimazio fidagarriagoak egiteko⁷⁰.

⁶⁴Hau da, gorrotoak eragindako gertakari guztiak, Ipar Irlandako poliziak hala direla ulertzen badu, erreferentzia-puntu izango dira.

⁶⁵Batzuetan bigarren auzialdi gisa jardun badezake ere, auzitegi nagusi bat da (superior edo senior court), lehen auzialdian nolabaiteko larritasuneko zigor-prozedimenduak ezagutzen dituen.

⁶⁶Lehen auzialdian larritasun txikiagoko kasu penalak ezagutzen dituen beheagoko auzitegiak dira (inferior courts).

⁶⁷Gutxienez delitu batengatik kondenatuak izan direnak aipatzean (convicted of at least one offence), kontuan hartu behar da akusatu batzuk delitu desberdinengatik kondenatuak izan daitezkeela, eta kategoria horren barruan sartzen direla -hala badagokio-gorrotoak eragindako delitutik (hate motivated offence) absolbituak baina beste delitu batengatik kondenatuak izan diren akusatuak ere.

⁶⁸Atal honetan jasotakoaz gain, ikus, halaber, Inglaterra eta Galeseko gorroto-gertakariaren ibilbidearen datu eguneratuak dituen laburpen bat: ALLEN/ZAYED, "Hate crime...op. cit., 5-42. orr.

⁶⁹CSEWren datuak Barne Ministerioaren (Home Office) gorroto-delituen inguruko txostenean jasotzen dira; beraz, aurrerantzean CSEWren datuak aipatzen direnean eskuragarri dagoen azken txosten horri erreferentzia egiten ari zaiola ulertu behar da: HOME OFFICE, "Hate crime, England and Wales, 2021 to 2022", Home Office, 2022.

⁷⁰Datu konbinatu hauen arazoa da, joera orokorrak eta epe luzeak islatzeko potentziala baino ez dutela. Gainera, nahiz eta teoriarik poliziaren eskuetara iristen ez diren delituak jaso daitezkeen, CSEWak ez ditu barne hartzen enpresa edo erakundearen aurka egindako delituak, Inglaterran eta Galesen bizi ez diren (adib.: turistak) edo 16 urtetik beherakoak diren pertsonen aurka egindako delituak, edo «biktimarik gabeko krimenak» (victimless crimes) gisa katalogatuta daudenak, hau da, gizabanako identifikagarriak ez duten arau-hauste penalei dagozkienak, ordena publikoko delituak (public order offences) izan daitezkeen bezala.

Eskuragarri dagoen azken datu-zerrenda 2017/18, 2018/19 eta 2019/20ko inkestei dagozkien datuen konbinazioari buruzkoa da⁷¹.

Estimazioak badira ere, CSEWk jasotzen dituen datu konbinatuek adierazten dute (2017/18tik 2019/20ra) 190.000 gorroto-delitu gertakari izan direla urtean (*hate crime incidents*). Hau da, CSEWak bere lana egiteko jasotzen dituen delituekin lotutako gertakari guztien (6,1 milioi) % 3. Halaber, CSEWek erregistratutako gorroto-delitu gertakarien % 47 poliziari jakinarazten zaizkio. Kategorien arabera, 104.000 gertakari erasotzaileak biktimaren arrazarekiko zuen jarre-ragatik gertatu ziren, 50.000 gertakari biktimaren aniztasun funtzionalagatik, 42.000 biktimaren erlijioagatik, 23.000 biktimaren sexu-orientazioagatik eta 7.000 biktimaren genero-identitateagatik⁷². Delitu-tipologiari dagokionez, lehe-nik eta behin, nabarmentzekoa da gorroto-delitu gertakari baten biktimak pertsonen aurkako delitu bat jasateko arrisku handiagoa duela (*personal crime*), ondasun errealekin lotutako delitu bat baino (*household crime*)⁷³. Horrela, pertsonen aurkako delituek guztizkoaren % 59 (120.000 gertakari)⁷⁴ hartzen duten bitartean [lesiorik gabeko indar-keria (*violence without injury*), % 28; lesiodun indarkeria (*violence with injury*), % 17; pertsonari egindako ebasketa (*theft from person*), % 7; indarkeriaz edo larderiez egindako lapurreta (*robbery*), % 5; jabetza pertsonalarekin lotutako beste ebasketa batzuk (*other theft of personal property*), %2], ondasun errealekin lotutako delituak guztizkoaren % 41 hartzen dute (70.000 gertakari)⁷⁵ [kalte-delitu (*criminal damage*), % 20; indarra erabiliz egindako lapurreta eta egoitza edo bizilekuaren bortxatzea (*burglary*), % 10; ibilgailu-ebasketa (*vehicle-related theft*), % 5; ondasun errealekin lotutako beste ebasketa bat (*other household theft*), % 5; bizikleta-ebasketa (*bicycle theft*) % 1]. Hala ere, ondasun errealekin lotutako delituen biktimen %27 k gutxienez beste biktimizazio bat jasan du gorroto-delitu gertakari beragatik azken urtean, pertsonen aurkako delituen kasuan % 16a delarik.

Bigarrenik, CSEWren zenbait datu aztertu ondoren, gorroto-delituen polizia-erregistroei buruzko informazioa ere aipa dezakegu (*police recorded hate crimes data*). CSEWek emandako informaziotik bereizten da, besteak beste, urtean behin argitaratzen den heinean, eta biktimizazio-inkestan kanpo geratzen diren supostu haiek barne hartzen dituen heinean⁷⁶. Beraz, eskura dauden azken datuetan arreta jarrita (2021/22)⁷⁷, Ingalaterra eta Galesko poliziak **155.841 gorroto-delitu** erregistratu zituen, % 26ko igoera egon delarik 2020/21 urtearekin alderatuta⁷⁸. Delitu horietako bakoitza eragin zuten arrazoiak bat baino gehiago izan daitezkeela kontuan hartuz, guztira 163.322 motibazio-faktore egon ziren aipatutako 155.841 delituetan. Prebalentzia-ordenaren arabera, kategorია hauek aurki ditzakegu: arraza

⁷¹Xehetasunez, ikus HOME OFFICE, "Hate crime, England and Wales, 2019/20", Home Office, 2020, 19-29. orr. CSEWen zifren hurrengo argitalpena 2023rako aurreikusita egongo litzateke, baina atzeratu egin daiteke, Covid-19aren pandemiaren aurreko inkesta bertan behera geratu zelako osasun publikoaren murrizketengatik. Hurrengo lerroetan, aurreko bi txostenetan jasotakoari helduko diogu: GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINITZA, "Euskadiko... op. cit., 2022, 69-70. orr.; GIZA ESKUBIDEEN ETA BOTERE PUBLIKOEN UNESCO KATEDRA/ERTZAINITZA, "Euskadiko gorroto-gertakariak buruzko 2020ko txostena", Eusko Jaurlaritzako Gobierno Vasco, 2021, 53-54. orr.

⁷²Batuketak 190.000 gertakariaren kopurua gaintzen du, 190.000 gertakari hauen baitan biktimak delituak babestutako kategoría batek baino gehiagok eragin duela adierazi ahal izan duelako.

⁷³Delitu pertsonalak (*personal crimes*) pertsonari zuzentzen zaizkionak dira, norberaren esperientziarekin lotzen direnak, eta ez etxe bereko beste batzuen esperientziarekin. Ondasun errealekin lotutako delituek (*household crimes*) jabetza batean kalteak edo lapurretak eragiten dituztenak dira, eta momentuan toki horretan bizi den beste edozein pertsonari eragiten diote.

⁷⁴120.000 gertakari hauetako bakoitza babestutako kategoría batek baino gehiagok eragin ahal izan duela kontuan hartuta, ikus honako datu banaketa hau babestutako kategoríaren arabera: arraza (66.000), erlijioa (30.000), aniztasun funtzionala (27.000), sexu-orientazioa (19.000) eta genero-identitatea (4.000).

⁷⁵70.000 gertakari hauetako bakoitza babestutako kategoría batek baino gehiagok eragin ahal izan duela kontuan hartuta, ikus honako datu banaketa hau babestutako kategoríaren arabera: arraza (39.000), aniztasun funtzionala (23.000), erlijioa (12.000), sexu-orientazioa (4.000) eta genero-identitatea (3.000).

⁷⁶Polizia-erregistroei buruzko informazioak duen arriskua, ordea, bikoitza da. Lehenik eta behin, CSEWren gertatzen zenaren kontrara, datu hauek ez dute National Statistics-en estatusa, zeina, azken finean, Erresuma Batuko Estatistiken Kontseilu Nazionalak (UK Statistics Authority) ematen duen -bere ardurapeko organoen bitartez-, estatistika horiek Code for Practice for Statistics delakoarekin bat datozenean. Horrela bakarrik gaintzen da argitaratzen den informazio estatistikoaren fidagarri asun, kalitate eta balioaren estandarrik altuena. Bigarrenik, gogorarazi behar da gorroto-gertakari asko poliziaren ezagutzatik kanpo geratzen direla, hau muga handi bat delarik gorroto-kriminalitatearen benetako eragina ezagutu ahal izateko. Ikus OSR, "Code for Practice for Statistics. Ensuring official statistics serve the public", UK Statistics Authority, 2018.

⁷⁷Datu hauek lurraldeko hainbat polizia-indarretatik datoz. Hemendik aurrera, hurrengo argitalpenean jasotako datu estatistikoen zerrenda emango da: HOME OFFICE, "Hate crime, England and Wales...op. cit.

⁷⁸Hala ere, adierazi denez, ez dago argi poliziak erregistratutako gorroto-delituen gorakadak zer neurritaraino dakarren benetako gorakada, edo polizia-erregistroko lanaren etengabeko hobekuntzekin eta gero eta biktima gehiagok horrelako delituak poliziari salatzeak konfiantza arekin duen zerikusia.

(109.843 – % 67,25), sexu-orientazioa (26.152 – % 16,01), aniztasun funtzionala (14.242 – % 8,72), erlijioa (8.730 – % 5,34)⁷⁹ eta transgeneroa (4.355 – % 2,67).

Delitu-tipologiaren arabera, Ingalaterrako eta Galesko poliziak erregistratutako gorroto-delitu guztien erdia baino gehiago ordena publikoaren aurkako delituengatik izan ziren (% 51). Ordena publikoaren aurkako delituak, hori bai, poliziar erregistratzeko jakinaraz dakizkiokeen delitu guztien % 11 baino ez dira, gorroto-delituen kategorია espezifikoa harago. Jarraian, pertsonen aurkako indarkeria-delituak (% 41) eta kalte- eta sute-delituak (% 5) daude. Polizia-ikerketa egin ondoren, poliziak berak hasiera batean gorroto-delitu gisa markatutako delituen %84k azken emaitza bat dute esleituta (gainerako % 16a ikerketa amaitzeko zain dago emaitza bat esleitzeko). Bada, gorroto-delitu guztien % 9k akusazioak/zitazioak (charges/summons) eragin dituzte. Delitu-tipologiaren arabera, ordena publikoaren aurkako delituen % 10ek akusazioak/zitazioak eragin dituzte, pertsonen aurkako indarkeria-delituen % 7k eta kalte- eta sute-delituen % 5ek.

Estatuko Fiskaltza Nagusia (Crown Prosecution Service edo, siglen arabera, CPS) Ingalaterra eta Galesen gorroto-delituengatik aurkeztu diren akusazio formalen kopurua argitaratzeaz arduratzen da. Zehazki, 2021/22an⁸⁰ 13.073 akusazio aurkeztu ziren gorroto-delituengatik, % 22,4ko igoera egon zelarik 2020/21arekin alderatuta. Aurkeztutako 13.073 akusazioen emaitza kondena-epaia izan da 11.055 kasutan, kondena tasa % 84,6koa izanik. Zehazki:

- Arrazari lotuta aurkeztutako 9.961 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 76,19) 8.426k kondena epaia lortu zuten, % 84,6koa izanik kondena tasa.
- Homofobiarekin lotuta aurkeztutako 2.283 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 17,46) 1.962k kondena epaia lortu zuten, % 85,9koa izanik kondena-tasa.
- Erlijioaren inguruan aurkeztutako 359 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 2,75) 294k kondena epaia lortu zuten, % 81,9koa izanik kondena-tasa.
- Aniztasun funtzionalari lotuta aurkeztutako 345 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 2,64) 273k kondena epaia lortu zuten, % 79,1koa izanik kondena tasa.
- Transfobiaren inguruan aurkeztutako 125 akusazioetatik (aurkeztutako akusazio guztien % 0,96) 100ek kondena epaia lortu zuten, % 80koa izanik kondena-tasa.

Azkenik, nabarmendu behar da oraindik ez direla argitaratu 2019/20, 2020/21 edo 2021/22 aldiko datuak biltzen dituzten txostenak, CPSk gorroto-delituen arloan aurkeztutako akusazio horien atzean dauden delitu-tipologia zehatzak ezagutzea ahalbidetzen dutenak⁸¹.

⁷⁹Zehazki, arrazoi erlijiosoek eragindako 8.730 gorroto-delituetatik, 8.307ri (% 95) buruz informazio gehiago helarazi da. Arrazoi erlijiosoengatik 8.307 gorroto-delituetak bakoitzean, litekeena da delitu horren biktima gendak erlijio bat baino gehiago tartean egotea (*perceived religion*). Aurrekoa kontuan hartuta, nabarmentzekoa da arrazoi erlijiosoengatik gorroto-delituen % 42an biktima musulmantzat hartu zela, eta % 23an, berriz, judutartzat.

⁸⁰Aurrerantzean egiten den erreferentzia oro honakoari egiten zaiola ulertu beharko da: CPS, "CPS data summary Quarter 4 2021-2022", CPS, 2022. Esteka: <https://www.cps.gov.uk/publication/cps-data-summary-quarter-4-2021-2022>.

⁸¹Ikus orain arte argitaratutako txosten guztiak biltzen dituen fitxa egia esteka honetan: <https://www.cps.gov.uk/publication/hate-crime-reports>

2.2. FRANTZIA

2.2.1. ERREALITATE ENPIRIKOA, OSCETIK ATERATAKO DATUEN ARABERA

Frantziako gorroto-delituei buruz OSCE/ODIHR erakundeak darabilen estatistika-informazio berriena 2021ekoa da⁸², herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari berari emandako datuen iraulketaren arabera. Guztira, **3.443 gorroto-delitu** erregistratu dituzte polizia-erakundeek, hau da, % 28,85eko igoera aurreko urtearekin alderatuta. Kontuan izan behar da Frantziako agintariak OSCE/ODIHRri jakinarazitako poliziaren zifretan ez dela sartzen gorrotoa eragitearen delitu-figura, ezta publizitatearekin burututako difamazioarena edo irainena ere. Hala ere, argitu da motibazioagatik bereizitako zifrek delitu horiek barne har ditzaketela, nahiz eta gehien-gehienak erakunde horrek gorroto-delitutzat hartu behar denari buruz ematen duen definiziotik kanpo geratuko liratekeen.

Delitu-tipologia zehatzei dagokienez, argitu behar da sartu direla OSCEk erabiltzen duen gorroto-delituen definiziotik kanpo geratzen diren delituei buruzko datuak⁸³, bai eta beste bikoiztasun batzuk ere⁸⁴. Horregatik, ez da harrizkoa polizia-erakundeek 2021ean erregistratutako 3.443 gorroto-delituak nabarmen gainditzea (5.102). Aurrekoa kontuan hartuta, jarraian OSCE/ODIHRrek darabiltzan delitu-tipologia desberdinen arabera lortutako delituen kopurua islatuko da. Jarraian datorren sailkapena delitu-tipologiaren intzidentzia handienetik txikienera ordenatuta dago:

- **Mehatxuak eta jokabide mehatxagarria** (2.548; % 49,94). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategorია nagusitzen da (1.445; % 56,71). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: LGBTI-ren aurkakoa (477; % 18,72), antisemitismoa (436; % 17,11), musulmanen aurkakoa (106; % 4,16) eta kristauen aurkakoa (84; % 3,30).
- **Zehaztu gabe** (1.056; % 20,70). Motibazioaren arabera, kristauen aurkako kategoría nagusitzen da (773; % 73,20). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (153; % 14,49), musulmanen aurkakoa (107; % 10,13) eta LGBTI-ren aurkakoa (23; % 2,18).
- **Eraso fisikoa** (888; % 17,40). Motibazioaren arabera, LGBTI kolektiboaren aurkakoaren kategoría (587; % 66,10) eta arrazakeria eta xenofobiarena (301; % 33,90) aurreikusten dira.
- **Indarkeria eragitea** (279; % 5,47). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobiaren kategoría (173; % 62) eta LGBTI kolektiboaren kontrakoa (106; % 38) aurreikusten dira.
- **Ondasunei eragindako kalteak** (257; % 5,04). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobiaren kategoría (131; % 50,97) eta LGBTI kolektiboaren kontrakoa (126; % 49,03) aurreikusten dira.
- **Sexu-erasoa** (68; % 1,33). Motibazioa hemen LGBTI kolektiboaren aurkako kategoriaren parekoa da (68; % 100).
- **Hilobi profanazioak** (6; % 0,12). Motibazioa hemen arrazakeria eta xenofobia kategoriaren parekoa da (6; % 100).

⁸² Online sarbidea: <https://ha.ecrime.osce.org/france>

⁸³ Hori izango litzateke gorroto-diskurtzoko ekintzen kasua (*acts of hate speech*), mehatxuen eta jokabide mehatxagarriaren kategoriaren barruan sartzen baitira (*threats/threatening behaviour*).

⁸⁴ Adibidez, ez da argitzen zer neurritan bereizten den sexu-erasoaren kategoría (*sexual assault*) eta sexu-indarkeria (*sexual violence*), zeina eraso fisi oaren kategoriaren barruan sartzen baita (*physical assault*).

Egilearen motibazioari dagokionez, kategorien artean bikoiztasun batzuk egon daitezkeela ere adierazten da⁸⁵. Aurrekoa kontuan hartuta, guztira 5.102 motibazio daude kontabilizatutako gorroto-delitueta. Badirudi horrek iradokitzen duela ez dela motibazio anizkoitzik zenbatu. Jarraian datorren sailkapenak Frantziako polizia erregistratutako gorroto-delitueta dauden motibazioen kopurua ordenatzen du, agerpenaren prebalentzia handienetik txikienera:

- **Arrazakeria eta xenofobia** (2.056; % 40,30).
- **LGBTI kolektiboaren aurkakoa** (1.387; % 27,18).
- **Kristauen aurkakoa** (857; % 16,80).
- **Antisemitismoa** (589; % 11,54).
- **Musulmanen aurkakoa** (213; % 4,17).

Azkenik, aurreko urteetan ez bezala, OSCE/ODIHR erakundeak prozesatutako gorroto-delituen kopuruari eta Frantzian ezarritako kondenei buruzko datuak eman ditu. Guztira, jasota dago 486 gorroto-delitu prozesatu direla eta **425 gorroto-delituengatiko kondena-ebazpen eman direla**.

2.2.2. ERREALITATE ENPIRIKORA HURBILKETA: BESTE DATU BATZUK

Giza Eskubideen Aholku Batzorde Nazionalaren (CNCDH) txostenaren azken edizioak⁸⁶, hogeita hamaikagarrenak, arrazakeriaren eta xenofobiaren arloko 2021. urteko datuak jasotzen ditu. Horretarako, urtero, Hezkuntza Nazionalako Ministerioak, Barne Ministerioak eta Justizia Ministerioak arrazakeriaren aurkako borrokaren esparruan egindako jardueraren balantze estatistikoaren berri ematen diote Giza Eskubideen Batzorde Nazionalari. Era berean, txosten honek Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak aurreko urteetan egindako gomendioen jarraipena ere egiten du, bai eta Giza Eskubideen Batzorde Nazionalak 2021eko abenduan arrazismoaren, antisemitismoaren eta LGTB kolektiboaren aurkako gorrotoaren aurka borrokatzeko ministerioarteko ordezkariari jakinarazitako analisi eta proposamenak ere.

Barne eta Justizia Ministerioen jarduera-balantzeek arau-haustea diren arrazakeria gertakarien proportzioa erakusteko balio dute. Halaber, aipagarria da Barne Ministerioak bi balantze osagarri aurkezten dituela: alde batetik, Barne Segurtasuneko Ministerioako Estatistika Zerbitzuarena (SSMSI), polizia-zerbitzuen eta jendarmeria-zerbitzuen benetako jarduera islatzen duena; eta, bestetik, Lurralde Informazioako Zerbitzu Zentralarena (SCRT), tokiko homologoen informatzen dituzten gertakarien jarraipena egitea ahalbidetzen duena. Aurrekoari gehitu behar zaizkio informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako kriminalitatearen aurkako borrokaren bulego nagusiaren (OCLCTIC/SDLC) salaketak harmonizatu, aztertu, berreskuratu eta orientatzeko plataformak (PHAROS) bildutako datuak, Frantzia diskriminazio egoeraren irudi osoago batera hurbiltzen gaituztenak, online burututako gorroto-delituak eta jokabide diskriminatzaileak jasotzean.

2021eko SSMSIren balantze estatistikoak polizia eta jendarmeriak erregistratutako prozedurei buruzko datuak jasotzen ditu, Zigor Kodean «*arraza, jatorri, etnia edo erlijio arrazoiengatik*» egindako arau-hauste batzuk oinarri hartuta (4. eta 5. motako krimenak, delituak eta urraketak). Urte horretan, polizia eta jendarmeriak **12.499 arau-hauste** inguru erregistratu zituzten Frantziako lurralde osoan, **arraza, jatorri, etnia eta erlijioarekin lotura esplizitua zutenak**. 12.499 arau-hauste horietatik, 6.276 krimen eta delitutzat jo ziren (% 50,2), eta 6.223 4. eta 5. mailako urraketatzat (% 49,8). 2019 eta 2020 artean % 2ko beherakada txiki bat erregistratu ondoren, 2021ean % 16ko igoera erregistratu zen izaera kriminaleko edo delitu-izaerako arau-hausteetan.

⁸⁵Urte urte gertatzen den bezala, «arrazakeria eta xenofobia» kategoriarik buruzko datuek erlijio batekoa izateagatik -benetakoa edo ustezkoa- egindako delituen beste datu batzuk ere xurgatzen dituzte. Beraz, gertakari antisemitik, musulmanen aurkakoa eta kristauen aurkakoa, bakoitza bere aldetik agertzen badira ere, arrazakeria eta xenofobia kategoriarik gehitu dira. Aitzitik, gertakari antisemitei, musulmanei eta antiekristauet buruzko zifra osoak eskaintzen direnean, esaten da arrazakeria eta xenofobia kategoriarekin ere jakinarazi direla eta, beraz, bi aldiz «ager daitezkeela». Ez da askoz gehiago argitzen.

⁸⁶COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), «*La lutte contre le racisme, l'antisémitisme et la xénophobie*», CNCDH, Paris, 2022.

lido horretan, 2021ean gorakada nabarmena gertatu da zenbait delitu-tipologiatan (% 24 mehatxueta eta xantaia-eta, eta % 16 probokazioetan, irainetan eta difamazioetan), eta beste tipologia batzuek, berriz, beherakada handia izan dute (% 33 gorpuaren osotasunaren edo ehorzketa-lekuaren urraketaren aurkako delitueta⁸⁷, eta % 3 ondasu-aren aurkako atentatueta. Gorpuaren osotasunaren aurkako delituak edo ehorzketa-lekuaren bortxaketa % 33 gehitu ziren, baina zifrak oso baxuak direnez, igoera hori bi delitu gehiago baino ez dira.

Nolanahi ere, 2021ean, etnia, nazionalitatea eta arraza edo erlijioa (benetakoa edo ustezko) direla-eta burututako delituen kasu zehatzean, gehienak (% 61) ezgaitzea ez dakarten indarkeria-ekintzak dira, eta, ondoren, 8 egunera arteko ezintasuna eragiten duten indarkeria-ekintzak (% 29), 8 egunetik gorako ezintasuna eragiten duten indarkeria-ekintzak (% 11), eta, azkenik, jatorri, etnia, nazio, ustezko arraza edo erlijioa dela-eta, egintza publiko batean burututako indarkeria-ekintza ezgaitzaileak eta ezinduak.

Urraketak, bestalde, % 14 igo dira 2021ean, 2020an % 12 igo ondoren. Kasuen % 94tan, "etnia, nazio, ustezko arraza edo erlijio arrazoiengatik burututako irain ez-publikoen" 4. mailako delitu penal motari dagozkio.

Profilari dagokionez, erasotzaileen %72 inguru eta biktimen %59 gizonak izan ziren. Hala ere, erasotzaileen artean, emakume erasotzaileen gehiegizko ordezkartza aipatu behar da (% 28, 2021ean segurtasun-indar eta -kidegoek identifikatutako erasotzaileen % 16 ez bezala).

Adinari dagokionez, biktimak, oro har, tarteko adinekoak izan ziren; izan ere, biktimen % 71 25 eta 54 urte bitartekoak ziren. 25 urtetik beherakoen (% 16 inguru, biztanleriaren % 30 direnean) eta 55 urtetik gorakoen (%12 inguru, biztanleriaren % 33 direnean) ageriko ordezkartza txikia salatzeko joera txikiaren ondorio izan daiteke, batez ere gazteen kasuan, eta ez hainbeste adierazpen arrazisten aurreko esposizio txikiagoaren ondorio.

Erasotzaileei dagokienez, delitu arrazistengatiko erasotzaileen batez besteko adina delituen batez bestekoa baino handiagoa da oro har (48 urte, eta 31 urte, berriz, 2021ean). Erasotzaileen kasuan, biktimen kasuan bezala, gehienak 25 eta 54 urte bitartekoak dira, baina adin-tarte horretako prebalentzia txikiagoa da (% 58). Erasotzaileen kasuan, aldiz, gazteak ere gutxiegi ordezkartuta bazeuden ere (% 35) 35 urtetik beherakoak izan ziren, eta inputatutako pertsonen % 64 dira), 55 urtetik gorakoak gehiegi ordezkartuta zeuden (erasotzaileen % 25 izan ziren, eta inputatutako pertsonen % 7 dira).

Bestalde, atzerritarrek ordezkartza handiegia dute biktimen zenbaketan. Izan ere, krimenen eta delituen biktimen %18⁸⁸ izan ziren, biztanleriaren %7 eta poliziak erregistratutako delituen biktimen %10 izan arren. Nagusiki, Afrikako kontinentetik etorritako pertsonak dira kaltetuenak (%14 talde horretako kide dira, biztanleriaren % 4 inguru izan arren). Logikoa denez, ordezkartza hori ez da erasotzaileen kasuan islatzen; izan ere, erasotzaileen % 10 bakarrik jaio ziren Frantziatik kanpo, 2021ean prozesatu ziren atzerritar jatorriko pertsonen %19 baino gutxiago. Dena dela, biktimen kasuan bezala, atzerritarren artean ere afrikar jatorriko erasotzaileak dira nagusi (%6, eta aldi horretan jatorri bereko auzipetuen %12), gainerako nazionalitateetan ez bezala (%4, eta auzipetuen %7, berriz, 2021ean).

Nabarmenezkoa da, ingurumenaren ikuspegitik, aurreko txostenetan aipatu izan den bezala, jendetza handiek izaera arrazistako adierazpenak faboratzen dituztela: lehen aipatutako delitu eta krimenen biktimen ia bi heren Parisen edo inguruetan biltzen dira (% 26) edo 200.000 biztanletik gorako hiri-eremuetan (% 35), nahiz eta lurralde horiek biztanleriaren % 42 biltzen duten. Aitzitik, landa-eremuetako udalerriak dira horrelako gertakari arrazistek gutxien eragituak direnak, etnia, nazionalitatea, erlijioa edo arraza dela-eta burututako delituen biktimen % 7 baino ez baitatoz udalerri horietatik.

⁸⁷Nolanahi ere, txostenak berak adierazten duen bezala, komisio-egintza kopuru txikia jasotzen duen delitu-tipologia bat da, eta. Beraz, gorakada horrek bi delitu gehiago burutu izana baino ez du esan nahi.

⁸⁸Horri dagokionez, Giza Eskubideen Batzorde Nazionalaren txostenak berak adierazten du interesgarria litzatekeela bereiztea, Frantziako nazionalitatea duten biktimen artean, horietatik zenbat diren etorkinen ondorengoak edo bigarren belaunaldiko etorkinak. Izan ere, infra aipatuko den "*Cadre de vie et sécurité*" biktimizazio-inkestaren arabera, migratzaileek eta haien ondorengoek aukera gehiago dituzte horrelako delitu bat jasateko nazionalak baino.

Fiskaltzan eta epailertzan arretoa jarritz, 2020an (2021ari buruzko daturik ez da argitaratu orain arte) 7.759 auzi iritsi ziren Fiskaltzaren eskuetara (aurreko urtean baino % 10 gehiago), eta **6.740 pertsona auzipetu zituzten**. Auzipetutako pertsona guztien artean, % 47,8 (3.223 kasu) irain, difamazio eta gorroto-probokazioengatik izan ziren; % 41,3 (2.783 kasu) pertsonen aurkako atentatuengatik; % 9,1 (611 kasu) diskriminazioengatik; eta gainerako % 1,8 (123 kasu) ondasunen aurkako atentatuengatik. 2020an (ez dago datu berriagorik), **955 kondena** zenbatu ziren **arrazakeriaren astungarrian oinarrituta**, 2019an baino % 10 gehiago. Ez dago daturik gainerako kolektiboetarako buruz.

Aurretik azaldutako guztiaz gain, arrazakeria/xenofobiatik haratagoko datu batzuk ere aurki daitezke, konkretuki gutxiengo erlijiosoei dagokienez. Zifra horiek ez datoz bat SCRTk jakinarazitakoekin, horiek ere goranzko joera erakusten baitute azken urtean, 2020an beherakada handia izan ondoren. Zehazki, 2020an erregistratutako jaitziera % 26koa izan zen guztira, eta 2021ean % 45,65eko igoera izan du. Hala ere, beherakada hori ez da orokorra izan kolektibo guztietan; izan ere, egintza antisemitak % 73 igo diren bitartean (339 egintza 2020an 2021eko 589 egintzekin alderatuta), egintza islamofoboek % 9ko beherakada txikia izan dute (234 egintza 2020an 2021eko 213 egintzekin alderatuta)⁸⁹.

SCRTak eta SSMSIk egindako datu-bilketaren izaera oso desberdina izan arren –eta horrek SCRTaren zifrak askoz baxuagoak direla esan nahi du; 2.128 gertaera erregistratu ziren 2021ean, hau da, SSMSIren erregistroaren heren bat gutxi gorabehera– bietan ikusten da gertakarien larritasuna handitzeko joera argi bera dagoela. Aurrekoaren arrazoiak izan daiteke konfinamenduak 2021eko zifretan izan zuen eragina askoz ere txikiagoa izan zela. Edonola ere, ezin da alde batera utzi SCRTk jakinarazitako gertakariak oro har SSMSIk jakinarazitakoak baino larriagoak direla.

Bestalde, arrazismoaren, antisemitismoaren eta LGTBI aurkako gorrotoaren aurkako borrokari buruzko Ministerio arteko Ordezkaritzak (DILCRAH), Barne Ministerioko Barne Segurtasuneko Ministerioko Estatistika Zerbitzuaren (SSMI) laguntzarekin, datuak biltzen ditu, eta urtero inbentario bat egiten du segurtasun-indarrek erregistratutako krimenen eta delituen biktimei buruz (polizia eta jendarmeria). Krimen eta delitu horiek biktimen sexu-orientazioan edo genero-identitatean –benetakoa edo ustezkoa– oinarrituta burututakoak dira. Emaizak jarraian azalduko dira⁹⁰.

Illo horretan, polizia eta jendarmeriako indarrek 3.790 arau-hauste homofobo edo transfobo erregistratu zituzten 2021ean; horietatik 2.170 delituak dira, eta 1.620, berriz, urraketak. Horrela, esan daiteke 2016tik 2021era bitartean, mota horretako delituen kopurua bikoiztu egin dela (zehazki, horien kopurua % 104 igo da), 2020tik 2021era bitartean % 28 igo baita. Urraketen gorakada are nabarmenagoa da (% 133; eta % 16 2020tik 2021era).

DILCRAHri erreparatuta, ordea, erregistratutako arau-hausteen kopurua handitu dela ulertzeko, testuinguruari erreparatu behar zaio. Bereziki, polizia-zerbitzuek eta jendarmeria-zerbitzuek biktimei egiten dieten harrera hobetzeko testuinguru jakin bati egiten dio erreferentzia txostenak, eta horrek biktimak animatzen ditu jasandako biktimizazioak salatzea: berariazko “harrera-erreferenteak” sartzeko polizia-etxeetan eta jendarmerietan, langileei emandako berariazko prestakuntza, etab. Hori delinkuentzia mota batean, gorroto-delinkuentzian, non, txosten horrek azpimarratzen duen bezala, LGTBfoboek ekintzen biktima gehienek ez salatzea erabakitzen dute. Horri dagokionez, “*Cadre de vie et sécurité*” inkesta aipatzen da. Horren arabera, 2012 eta 2018 artean, 14 urtetik gorakoan artean, mota horretako gertakarien 7.000 biktima identifikatzen dira batez beste; aldiz, irainen biktimen % 5ek eta LGBT kolektiboaren aurkako mehatxuen edo indarkeriaren biktimen % 20k baino ez du salatzen.

DILCRAHk erregistratutako delituetara itzuliz, irainak 2021ean erregistratutako delituen % 33,7 dira, eta, ondoren, abusu fisiko edo sexuarekiko arau-haustea (kasuen % 24) eta mehatxuak (delituen % 22). Urraketei dagokienez, 2019an eta 2020an bezala, gehienak irainak eta difamazioak dira (% 91,8).

⁸⁹COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), “La loi e contre... op. cit.

⁹⁰MINISTÈRE DE L'INTERIEUR, “Info rapide n°20: Les a eintes «anti-LGBT+» enregistrées par les forces de sécurité en 2021”, *Ministère de l'intérieur*, Paris, 2020. Online sarbidea: <https://www.interieur.gouv.fr/Interstats/Actualites/Info-rapide-n-20-Les-a-eintes-anti-LGBT-enregistre-es-par-les-forces-de-securite-en-2021>

Arau-hauste horien biktima gehienak gizonak (% 76) eta gazteak (biktimen % 60 35 urtetik beherakoak ziren) izan ziren. Komisio-lekuari dagokionez, Parisen eta inguruetan gertatzen dira mota horretako gertakarien % 20, eta gertakarien % 34 200.000 biztanletik gorako hiri-eremuetan gertatu ziren. Landa-eremuetan, aldiz, LGBT kolektiboaren aurkako gertakarien % 11 baino ez dira erregistratu. Beraz, esan daiteke eremu horiek gutxiegi ordezkaturik daudela, biztanleriaren % 22 biltzen baitute.

Bestalde, LGBT+ kolektiboaren aurkako delituen biktimen ia erdiak (% 47) leku publikoetan erregistratu ziren: % 31 bide publikoan, % 9 jendearentzat irekitako lekuetan eta % 7 zerbitzu publikoetan. Hala ere, 2021ean, osasun-krisia oraindik oso presente zegoen testuinguruan, gertakarien ia laurden bat (% 24) etxebizitza indibidual edo kolektiboetan gertatu ziren. Internet edo telefono-sare bidez egindako «LGBT+en aurkako» delituen biktimen proportzioa egonkor mantendu da 2021ean, 2020arekin alderatuta (% 9).

PHAROS plataformaren eskutik **Internet bidez burututako gorroto-delituei** soilik erreparatzen badiegu, **15.102 salaketa** jarri dira 2021ean gertakari diskriminatzaileengatik, Internet bidez egindako delituengatik jasotako salaketa guztien (263.825) % 5,7. Zifra hori, ordea, urrun dago 2020an erregistratutako 23.525 gertakarietatik. Jasotako salaketa gehienek arraza, etnia edo erlijioagatik gorrotoa eta diskriminazioa publikoki probokatzen duten kasuei (% 59) egiten diete erreferentzia, lehen aldiz irainak eta difamazio xenofobo edo diskriminatzaileak (% 31,9) eta gorrotoarako eta diskriminaziorako probokazio publikoa (% 4) gaindituz (eta bikoiztuz). Delitu horiek burutzeko modurik ohikoena sare sozialak dira, bereziki *Twitter*, 2021ean horretako gertaerengatik 5.159 salaketa biltzen baititu (% 33,5).

Azkenik, CNCDH jakinda administrazio-estatistikek ez direla gai Frantzia gaiaren egoera zehatza marrazteko, bere adierazgarritasunari eragiten dion "zifra beltza" kontuan hartzearen alde egin du, ezagutzen diren gertakarien kopurua benetan egindakoa baino askoz txikiagoa delako. Hurbilketa hori osatzeko eta azpideklarazioaren eragina mugatzeko asmoz, izaera soziologikoko beste iturri batzuk erabiltzen ditu, hala nola "Bizitza- eta segurtasun-taula" (*Cadre de vie et sécurité*) izeneko inkestak. Inkesta hauek, aurpegi-aurpegi zundaketa batek eta online inkesta batek osatuak, INSEE erakundeak 2007an sortu zituen, Delinkuentziaren eta Erantzun Penalen Behatoki Nazionalarekin (ONDRP) lankidetzan, aurreko bi urteetan herritarrek jasan ahal izan dituzten delitu-egitateak ezagutzeko eta segurtasun-gabezia subjektiboaren pertzepzioa identifikatzeko asmoz. Inkesta hori urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan egiten da, gutxi gorabehera Frantzia metropolitarrako 25.500 etxetan⁹¹. Gorroto-delituei dagokienez, ordea, ez da daturik eman 2021ean argitaratutako inkestaren azken edizioan⁹².

Amaitzeko, Frantziari buruzko azken txostenean, ECRik (Arrazakeria eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea) herrialde horretako agintariak ohartarazi ditu hainbat gairi buruz. Txostenean ikusten denez, gaur egun, Frantziako gorroto-diskurtsoari buruzko datu ofizialak mugatuak (eta ez oso zehatzak) dira. Nabarmentzekoa da, adibidez, 2020an arrazoi arrazistengatik burututako 5.500 delituetatik ia % 65 irain publikoak, zirikatzeak edo difamazioak izan zirela (*public insults, provocations or defamations*), eta % 22 mehatxu edo xantaia arrazistak (*racist threats or blackmail*)⁹³. Diskurtso arrazistaren biktima nagusiak etorkinak izango lirateke, batez ere afrikar jatorrikoak, baita haien ondorengoak ere. Era berean, frantziar gehienek (% 56) uste dute diskurtso antisemita areagotzen ari dela, nahiz eta zifra ofizialek erakusten duten 2019az geroztik nabarmen jaitsi direla horrelako erasoak⁹⁴. Egia esan, gorroto-diskurtsoaren zati handi bat sare sozialen bidez zabaltzen ari da. Hamar iruzkinetatik bat gorrotagarritzat (*hateful*) jo daiteke, eta frantsesen erdiak baino gehiago gorroto diskurtso baten biktima izan dira beren bizitzako uneren batean⁹⁵.

⁹¹COMMISSION NATIONALE CONSULTATIVE DES DROITS DE L'HOMME (CNCDH), "La lutte contre... op. cit.

⁹²SERVICE STATISTIQUE MINISTÉRIEL DE LA SÉCURITÉ INTÉRIEURE, "Insécurité et victimation: les enseignements de l'enquête «Cadre de vie et sécurité»", édition 2021, Ministère de l'intérieur, Paris, 2022. Online sarbidea: <https://mobile.inerieur.gouv.fr/Interstats/L-enquete-Cadre-de-vie-et-securite-CVS/Insecurite-et-victimation-les-enseignements-de-l-enquete-Cadre-de-vie-et-securite>

⁹³ECRI, "ECRI report on France (sixth monitoring cycle). Adopted on 28 June 2022", Secretariat of ECRI. Council of Europe, Strasbourg, 2022, 39. atala

⁹⁴ECRI, "ECRI report on France...op. cit., 41. eta 43. atalak.

⁹⁵ECRI, "ECRI report on France...op. cit., 45. atala.

Azkenik, besteak beste, ECRik gomendatzen du Frantziako agintariek inkestak abian jar ditzatela talde zaurgarrien aurkako diskriminazioaren joerak neurtzeko, «kide izatearen sentimenduetan» (*feelings of belonging*) oinarritutako datu anonimizatuen oinarriaren gainean⁹⁶. Gorroto-diskurtsoaren infra-salaketa murrizteko hartutako neurriei dago-kienez, ECRik azpimarratzen du Frantziako agintariek ez dutela egin erakunde horrek 2016an gomendatutako informazio-kanpaina, aurreko txostena argitaratu zenean. Frantziako agintariek argudiatu dute kontzientziazio-kanpaina hori SOS-Racisme bezalako elkarte espezializatuen bidez egiten ari direla⁹⁷. Ekintzen bidez burututako gorroto delituei dagokienez (*hate-motivated violence*), ECRik gogorarazi du arrazoi arrazistengatiko kasuek eta zigorrek gora egin dutela azken urteetan, nahiz eta artxibatutako kasuen kopuruak handia izaten jarraitzen duen. Arrazoi arrazista identifikatzeko zailtasunaren ondorio da hori, eta horrek absolutzio-tasa handiagoa dakar delinkuentzia-mota horretarako (% 11) beste kasu batzuetarako baino (% 7)⁹⁸.

2.3. ALEMANIA

2.3.1. ERREALITATE ENPIRIKOA, OSCETIK ATERATAKO DATUEN ARABERA

Alemaniaiko gorroto-delituei buruz OSCE/ODIHR erakundeak darabilen estatistika-informazio berriena 2021ekoa da⁹⁹, herrialde horretako agintari nazionalak erakundeari emandako datuen arabera. Guztira, **10.501 gorroto-delitu** erregistratu dituzte polizia-erakundeek, hau da, % 2,55eko igoera aurreko urtearekin alderatuta.

Zehazten denez, kalkulu horretan gorroto-diskurtsoaren delitu «batzuk» sartzen dira, nahiz eta erakunde horrek gorroto-delitutzat hartzen duenari buruz ematen duen definiziotik kanpo geratu. Era berean, argitu da gorroto-gertakari bakarra hainbat aldiz erregistratuta gera daitekeela, atzean motibazio bat baino gehiago badu. Beraz, aurrerantzean, erreferentzia-zifra 14.579 gorroto-deliturena izango da, motibazio-kopuru berarekin.

Jarraian OSCE/ODIHRrek darabiltzan delitu-tipologia desberdinen arabera lortutako delituen kopurua islatuko da. Jarraian datorren sailkapena delitu-tipologiaren intzidentzia handienetik txikienera ordenatuta dago:

- **Zehaztu gabe** (11.536; % 79,13). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (7.331; % 63,55). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (2.648; % 22,95), musulmanen aurkakoa (582; % 5,04), LGBTI kolektiboaren aurkakoa (509; % 4,41), generoa (199; 1,72%), aniztasun funtzionala (109; % 0,94), erromanien aurkakoa (90; % 0,78), kristauen aurkakoa (46; % 0,40) eta beste erlijio edo sinesmenak (22; % 0,19).
- **Ondasunei eragindako kalteak** (1.157; % 7,94). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (628; % 54,28). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (257; % 22,21), LGBTI kolektiboaren aurkakoa (104; % 8,99), musulmanen aurkakoa (67; % 5,79), generoa (56; % 4,84), kristauen aurkakoa (36; % 3,11), erromanien aurkakoa (5; % 0,43), aniztasun funtzionala (2; % 0,17) eta beste erlijio edo sinesmenak (2; % 0,17).

⁹⁶ECRI, "ECRI report on France...op. cit., 49. atala.

⁹⁷ECRI, "ECRI report on France...op. cit., 52. atala.

⁹⁸ECRI, "ECRI report on France...op. cit., 64. atala.

⁹⁹Online sarbidea: <https://ha.ecrime.osce.org/germany>

- **Eraso fisikoa** (1.089; % 7,47). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (795; % 73). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: LGBTI kolektiboaren aurkakoa (154; % 14,14), generoa (51; % 4,68), musulmanen aurkakoa (43; % 3,95), antisemitismoa (20; % 1,84), erromanien aurkakoa (9; % 0,83), kristauen aurkakoa (8; % 0,73), beste erlijio edo sinesmenak (6; % 0,55) eta aniztasun funtzionala (3; % 0,27).
- **Mehatxuak eta jokabide mehatxagarria** (625; % 4,29). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (409; % 65,44). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (68; % 10,88), LGBTI kolektiboaren aurkakoa (66; % 10,56), musulmanen aurkakoa (36; % 5,76), generoa (19; % 3,04), kristauen aurkakoa (11; 1,76%), beste erlijio edo sinesmenak (7; % 1,12), erromanien aurkakoa (5; % 0,8) eta aniztasun funtzionala (4; % 0,64).
- **Ebasketa/lapurreta** (114; % 0,78). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia (41; % 35,96) eta LGBTI kolektiboaren aurkakoa (36; % 31,58) dira nagusi. Horien atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (21; % 18,42), generoa (13; % 11,40), musulmanen aurkakoa (2; % 1,75) eta kristauen aurkakoa (1; % 0,88).
- **Sutea** (23; % 0,16). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (14; % 60,87). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: kristauen aurkakoa (6; % 26,09), antisemitismoa (2; % 8,69) eta beste erlijio edo sinesmenak (1; % 4,35).
- **Hilobi profanazioak** (18; % 0,12). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia (9; % 50) eta antisemitismoa (8; % 44,44) dira nagusi. Azkenik, musulmanen aurkako kategoria aipatzen da (1; % 5,55).
- **Bakearen asaldura larria** (8; % 0,05). Motibazioaren arabera, arrazakeria eta xenofobia kategoria nagusitzen da (4; % 50). Horren atzean, prebalentzia-ordenaren arabera, honako hauek daude: antisemitismoa (2; % 25), musulmanen aurkakoa (1; % 12,50) eta generoa (1; % 12,50).
